



## Binakako txapeldunordeak / 14



## Klika, elkarrekin konektatzeko

Euskara gure artean bizitzeko eskatuz pasa da Korrika / 2-3



**Nafarroako Herri Kirol Jokoen finala igandean jokatuko da Altsasun 11:00etan lortia parean / 15**

**Sakanako Plan Estrategikoaren berrikuspena bukatuta, ildo berriak zehaztu dituzte / 5**

**Altsasuko 20 dendatan egindako erosketak etxean jasotzeko aukera astelehenetik / 7**

**Pentsio duinen alde manifestatzera deitu dute. Altsasun, larunbatean, 18:00etan / 9**

**426 mendizalek osatu zuten Altsasutik irten zen Hiru Mendi Zerrak mendi martxa / 17**

**Los del Rayo sinfonikoa ikuskizuna bihar Lakuntzan, 19:00etan, kultur etxean / 22**

**Juanjo Olsagarre idazleak Kritikaren saria irabazi du 'la hemen' poesia liburuagatik / 23**



**Korrikako GEHIGARRIA**



Guaixe fundazioaren 25 urteurreneko kilometro hunkigarria bertan aritutakoek laster egin zuten, Garbiñe Petriatik, Aitziber Etxaizek eta Peio Astizek. WWW.KORRIKA.EUS

**Alfredo Alvaro Igoa** SAKANA

21. Korrika Sakanara, Aizkorbera, astearteko ordu bata hamar gutxietan sartu zen. Baina sakandarrek 40 minutu lehenago hartu zuten eguneko lehen lekukoa Muskizen. Imotz partean hainbat sakandarrek egin zuten lasterka. Eta bat-batean haien artean "txerri burua" jantzia zuen gizonezko bat agertu zen, furgonetara igo eta korrikalarien eta Korrikako arduradun guztien harridurako, kurririk ez, bertsoa kantatu zuen. Buruko maskara kendu eta une hartan espero ez zuten Korrikaren ardua taldeko kide bat zela ikusteak sorpresa handia eragin zien guztiei. Ibilbidean zehar bestelako bertsoak lortzen saiatu ziren Korrikako furgonetatik, baina ez zen posible izan.

Irurtzundarrek Aizkorbe aurretik herrira arteko bidea egin zuten lasterka. Tropel ederra iritsi zen Irurtzuna, eta Korrika segizioa zain zegoen jendearekin handitu zen. Atzerapen txiki batekin sartu zen Korrika, arakildarrek erritmoa mantendu zuten, aldea ez zen handitu.

Irurtzunen jendetza elkartu bazen, gauza bera gertatu zen

# Lasterketa asko, Korrika bakarra

21. Korrikak astearte goizaldean zeharkatu zuen ibarra. Orduan sakandarrek bizi izandakoaren kontakizuna da hurrena. Jakinik, oraindik sakandarrek Korrika bizipen gehiago izanen dituztela igandeko azken festan

Uharten, Lakuntzan, Arbizun, Etxarrin, Urdiainen, Altsasun eta Olatzagutian. Baina, baita Ihabarren ere. Eta izan zen langilerik lana utzi eta Korrika agurtzera aterata zena. Sakana Kooperatibakoak, Magotteauxekoak edota Viscofanekoak esaterako. Bide batez, aurrenekoen ordezkariak ez zen agertu km-a laster egitera eta Lakuntzako Udalaren lekukoa eraman zuen langileak Arbizura arteko bidea egin behar izan zuen.

Arakilen kirolarien tartea zabaldu zen. Julen Martijak eta

Jose Javier Zabaletak km-a egin zuten lasterka, aldamenean zitutuzten korrikalariak hurrengoan haien buruan txapelen bat jantzita nahi lukete. Haiei lekukoa estralurtarra zirudien boskote batek hartu zien. Sakana Motorsport taldekoak ziren, euren km-a kaskoa jantzita egin zutena. Hura bukatu bezain laster azkar asko kendu zituzten, nahiz eta haietako batzuk lasterkan segitu zuten Arakilen barna.

Ez dakigu ibilbideko ajeengatik, edo zergatik, baina Zuhatsu aldean Korrika mututu egin zen.

Furgoneta nagusiko megafoniak nahikoa kanta zirela esan zuen. Orduan iritsi zen animatzaileak hitzuna aritzeko garaia. Harik eta atzeko furgonetak aurrera egin eta haren megafoniak Korrikari doinua jarri zion arte. Bitartean denetarako prest dauden Korrikako arduradunak soinu ekipoko matxura konponetzea lortu zuten.

**Jauziak eta nahasteak**

Etxarri Aranatzek Korrika ikastola aurretik pasa zen, horrela haren 50. urteurrena aitortu

nahirik. Bakaikun Korrikak denboran eta espazioan atzerako jauzia egin zuen. Korrikaren 1102. km-a lasterka egin zuten Karriestu elkartekoek petoetan 1.003 km-a zuten Bakaikuko Udaleko ordezkariak pasa zieten. Petoari erreparatuta herrian baino Basaburuan egin zuten lasterka udalekoek. Eta metro batzuen bueltan espazio-denborako beste jauzi batekin Korrikaren lekukoa Iturmendirako bidean agertu zen, Larrañeta elkarteko ordezkariaren eskutan. Ikertzeko moduko fenomeno.

Korrika segizioan nagusi diren furgonetan joaten direnek 14 orduko lan txandak egiten dituzte. Etxarri Aranatzek egin zuten txanda aldaketa. Arbizuko kanpinean majo lo egin eta gero, furgonetetara joan ziren arduradun berriak eta elkar agurtzeko tartea eta jakin beharrekoak adierazteko aukera izan zuten.





**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Furgoneta gidari berriek binahaste txiki izan zituzten. Lehena Urdiainen izan zen. Goienkalde kaletik plazarantz jo beharrean furgonetak Sanmartinkalderantz jo zuen. Urdindarrek azkar asko gaztigatu zuten gidaria. Korrika gelditu egin zen eta atzerako maniobra egin ondoren, lasterketak Urdiainen barna segitu zuen. Altsasun, berriz, Garbitoki eraikinaren parean ezkerrean jo beharrean Gartzia Ximenez kalean aurrera jarraitzekotan egon zen furgoneta. Garaiz gaztigatu zuten gidaria, kalearen erdian Korrikaren zain zeuden altsasuarren onerako.

### Omenaldiak

Edizio bakoitzeko kontua da. Baina azken urteetan baino nabarmenagoa izan zen aurtengo Korrikaren Haritzalko basoko geldialdia. Handik pasatzen den lekuko eramaileak Javier Eseberri zenaren omenezko oroigarriaren lore eskaintza egin behar izaten du. Lehenengo Korrika pasa eta gero Etxarri Aranatzera bueltan zihoala auto batek harrapatuta hil zen gaztea. Aurtentzen erabateko geldialdia egin zen

Etxarri Aranazko Gazte Asanbladako kide batek lore eskaintza egin bitartean. Horren lekuko izan zen deabrua, gazte erakundearen logotipotik atera eta euskararen aldeko lasterketan atzera ere parte hartu zuena.

Altsasuko kale bazterretan jendetzak harrera egin zion Korrikari. Gazte Asanbladako kideek sartu zuten lekukoa herrira, Gaztewood film laburren jaialdiaren deialdia eta kide presoaren askatasuna aldarrikatuz. Altsasuko Udalak bere lekukoa Mila Kolore elkarteari eman zion, egiten duen lana aitortzeko. Aurrerago Altsasuko auziagatik preso dauden zazpi herritarren irudia handiak agertu ziren, Korrikako petoak eta argi frontalak jantziak zituztela.

Aipatzekoa da Korrika Sakanan egin zuen bost orduetan, 00:52tik 06:10era, haur asko izan zirela lasterkan. Bai lekukoa eramaten, bai senideekin batera laster egingen. Azken aurreko kilometroan bakarren bat gurdian erosozihoan lotan. Horrekin batera, makina bat omenaldi partikular egiteko balio izan zuen. Urtetan Mexikon errefuxiatuta bizi izandako Txo-

min arbizuarra lekukoa herrian eramatea. Edo lekukoa eramaten zuen seme presoaren argazkia eskutan zuten Altsasuko Gurasoak taldeko aitarena, esaterako. Edo bizkarretik helduta metro batzuk korrika egin zuten lagun irurtzundarrak. Euskara ikasleei edo euskaldun berriei lekukoa eramateko aukera eman zieten Arbizon eta Iturmendin. Km osoa hainbat zatitan banatu zuten ibarreko hainbat eragilek.

Sakandarrek asteartean eraman dako azken km-a Guaixe fundazioarena izanzen. Abenduan hilabetekaria estreinakoz argitaratu zela 25 urte beteko dira. Fundazioak sortzaileak omendu nahi izan zituen. Sortzaile eta kazetari lanean aritzen ziren Aitziber Etxaiz, Bierrik elkartearen lehendakaria izan zen Peio Astiz eta elkartearen kudeatzaile 10 urtez aritu ziren Garbiñe Petriatik lekukoa eramane zuten. Azken metroetan gaur egun fundazioko langile diren Mainer, Maria, Olatz eta Gema batu zitzaizkien.

Km askotan lekukoa biren artean eraman zen. Irribarre konplizeak sortzen ziren eramaileen artean. Hunkitua sumatu geni-



21. Korrika Lizarragabengoatik igaro zenean.

tuen asko. Izan zen lekukoari musu eman zionik ere.

Bestetik, sakandar gehien gehienek laster eginez parte hartu zuten Korrikan. Batzuk km ugari egin zituzten. Korrikalariak bizikletan edo patin gainean lagundu zituztenak izan ziren. Etajakina, urtero moduan, Korrikaren atzetik auto ilara luzea joan zen beti, uzten zuten lasterkariak jasotzen zituztenak. Korrikalari askok eta askok Sakanako AEK animatzaile saltsero zirikazaleekin barre egin zuten. Gainera, bai, bat, bi eta

hiru esaten zuten bakoitzean salto egiten zuten. Hala, Arabara ia 20 minutuko atzerapenarekin iritsi zen Korrika. Argitzearekin arindu behar izan zuten erritmoa.

Korrika hirugarren aldiz segituan gauez zeharkatu zuen Sakanan. Erlainoa, hezetasuna, ipar-mendebala eta hotza bai, baina euririk ez. Izarrak ikusteko aukera izan zuten Korrikaren zain zeudenek eta parte hartu zutenek. Zeru izarratuepean euskaraz bizi nahi duten sakandarrek ahobizien eta belarripresten konstelazioa berriro zuten.

## Zu agertzen zaren Korrikako oroigarria nahi?

Guaixek ateratako argazkiak propio birziklatutako marko berezietan eskura ditzakezu orain

### SAKANA

21. Korrika asteartean pasa zen Sakanatik eta Guaixek hura irudietan jaso zuen. Argazkiak gaurko gehigarrian eta [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) gunean dituzu ikusgai. Batuta birziklatze laborategiak

eta Guaixe fundazioak elkarlanean egindako eskaintzari esker gogoko argazkiak marko berezian bilduta jaso ditzakezu orain. Zein markotan? Korrikako ibilbideko km-ak seinaleztatzeko erabilitako kartoiez egindako markoa.

Bai Batuta birziklatze laborategiaren bai Guaixe fundazioaren proiektuarekin erabilitako produktu bat berrerabili egiten da, jarri zen tokian galtzen utzi beharrean. Horrela, ingurumena zaintzeko ekarpena egiten da. Bestetik, ekimenak euskararen aldeko lasterketaren oroigarri eder bat gordetzeko aukera ematen du. 10 eurotan. Eskaintzan interesa duenak argazkia aukeratu eta bere eskaera [admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus) e-posta helbidean egin beharko du.



Korrika oroigarri bereziak eskuratzeko aukera dago.

## Korrikaren zabalkundea

Beleixe Irratiak Korrikaren pasaren zuzeneko kontakizuna egin zuen asteartean. Estudioan Eneida eta Gorka Ovejero izan ziren. Errepidetik hizlari Mainer izan zen, Mariaren laguntzarekin. Alfredo, Gema eta Olatz furgonetatik aritu ziren. Bideoen ardura Erkudenena izan zen. Argazkiak ateratzea, guztiena. Lan hori errematatu zuten lunek, Goizederrek eta Mirenek.





ASTEKOA

AINGERU MIKEO

## Dena da posible

Aurreko batean lagun batek esaten zidan Gobernu bulego batetik administrazioko langileei zirkular bat ele bitan bidali orduko erantzun bat jaso zutela. Horretan, laburki bezain zorrotz, erantzunak adierazten omen zuen hari ez bidaltzeko euskarazko idazkirik bere baimenik gabe, "pistolarien" alderdikoa zela eta "vivaspaña" batez bukatzen zuen erantzuna. Geroxeago, pixka bat arakatuta, jakin omen zuten ospitale multzoko larrialdietako mediku bat zela.

Zer pentsatua ere ematen du halako erantzun ergel baina muturreko horrek, batez ere, Gobernu mediku funtzionario batengandik etorrira. Pentsatzekoa harekin tokatuz gero, balizko laguntzailearekin euskaraz mintzatzen entzunda, astazakil hori (gizonezkoa zen) ondeste-haztapen (tacto rectal) baten aitzakiaz mingaina erazteko ere ez ote den gai izanen, euskara ez aditzeagatik. Ikaragarria nafar guztiak artatu behar gaituen mediku batek euskara egunerokotasunean darabilgunoi halako gorrotoa azaltzea. Ikaragarria funtzio publikoan ari diren

## ZER PENTSATUA ERE EMATEN DU HALAKO ERANTZUN ERGEL BAINA MUTURREKO HORREK

profesional askorengandik halako jarrerak sumatzea. Horrela, amaitzeaz dagoen legealdi honetan, batzuen aldetik temati entzun den hitz nagusietakoa izan da "inposizioa". Kuriosoa, askotan, baita jatorriz nafar ez direnen ahotan ere. Orain,

hauteskunde atarian, biderkatuko dira ukazioan eta euskarafobian bizi direnen mezuak. Zorionez, haien arrazoibide eskasak gero eta ahulagoak dira.

Horregatik, Euskal Herria zeharkatzen ari den 21. Korrika haize freskagarria da, alaitasuna, ametsa, bakoitzaren nortasuna errespetatzea, eguneroko jardunerako eta borrokarako indar berritzailea, bateratzailea, beharrezkoa. Orain, gaur eta hemen dena da POSIBLE. KLIKA KORRIKA KLIKA.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubi-dea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

## HARA ZER DIEN

### Etxeko langileak kontratatuzeko laguntza berria

#### SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Gure ibarreen eta erkidego osoan gero eta ohikoagoa da mendekotasuna duten pertsonak atenditzeko langileak kontratatzea; gure senideen zaintzaren ardura partekatuz gure egunerokotasunean laguntzen gaituzte eta bakarrik bizi diren edo familia ez dutenentzat nolabaiteko autonomia bermatzen die edota egoitza batera joatea ekiditea lortu.

Egoera honetan daudenek, hau da, mendekotasun gradu bat izan eta pertsona bat kontratatuz, laguntza ekonomiko berri bat jaso dezakete. Bete beharreko

beste baldintza batzuk ere badira:

- Mendekotasun graduaren arabera gutxienez hilean 60 edo 80 orduko kontratua izatea eta gizarte segurantzaren alta emanda egon.

- Kontratututakoek 18 urte beteak izan behar dituzte eta ezin dira familiarrak izan, gehienez lehengusuak.

- Kontratatu diren pertsonak formakuntzaren bat izan behar dute alorrean edo esperientzia urteak (lan-bizitzan agertzen dena). Orain arte lan esparru honetan ez da formakuntzarik eskatu, horregatik Nafarroako Gobernutik habilitazioa

eskaintzen diete lan esperientzia luzea izan, baina formakuntza berezirik ez dutenei; aitortza ematen zaie, lan honetarako formakuntzaren baliokidea izan daitekeen agiria emanez. - Zaintzak ematen dituzten enprekin egindako kontratuak izatea.

Laguntza berri hau gaur egun etxean mendekotasunak dituztenak atenditzeagatik jasotzen direnak baino altuxeagoak dira eta beste batzuekin bateragarriak izan daitezke. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bitartez egin daiteke eskaera hau baita aipatutako formakuntzaren habilitazioa ere.

## OBJEKTIBOTIK

### Txapelik ez, baina lekukoa eskuetan

Horrela ikusi ahal izan genituen Julen Martija eta Jose Javier Zabaleta pilotariak Zuhatzun lekukoa eskuan zutela korrika egiten.

Finalaren hurrengo egunean pasatu zen 21. Korrika Sakanako lurretatik eta Zabaletak ajea kenduta korrikari egin zion Martija lagun zuela. Binakako finala irabazi ez izanaren tristura kentzeko primeran etorri zitzaion Korrika Zabaletari, korrika zihoaztela irribarrea ez baitzitzaien falta izan gure bi pilotariei.



# guaixe

SAKANAKO AS TEKARI A

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
Miren Arregi Olivencia  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Miren Alonso Razkin

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

# Mank

s a k a n a

## BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua  
Gobierno de Navarra

## Plan estrategikoaren berrikuspena despeditu dute

Erronka berriak jasotzen dituen txostena Nafarroako Gobernuari Aste Santuaren ondoren aurkeztuko diote

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoaren (SPE) indarraldia bukatzeko bi urte falta dira eta orain arte egindako lana eta eraginkortasunean nola hobetu aztertu dute azaroaz geroztik. SPEren berrikuspena despeditzeko Sakanako Sozioekonomia Behatokia here-negun elkartu zen. Jasotako ekarpen eta hausnarketekin ondutako Sakana 2020+ Plan Estrategikoaren berrikuspen txostena aurkeztu zen, bidean identifikatu diren erronkei erantzuteko eragileen lan ildoak zehaztu ziren eta Sakanako Garapen Agentziak 2019rako lan ildoak aurkeztu zituen.

Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak aurtengo ildoen nondik norakoak azaldu dizkigu. Alde batetik, Sakana marka indartu nahi dute. Bestetik, gobernantza ereduaren sakondu nahi dute: "elkarlanean ongi ari gara, baina sakondu egin nahi dugu". Horretan zerikusi handia izan du hauteskundeekin udaletan eta mankomunitatean izan diren aldaketak. "Lanketa berezia egingen dugu hainbat mailetan. Udalek lau urteko ziklo berri bat hasiko dute eta agentziak lagundu egingen die. Sakanako Mankomunitateak, berriz, bere plan estrategikoa ezarriko du ere". Ez dute ahaztu Sakana eskualde bihurtuko dela.

### Lan ildoak

Industriari dagokionez, Irurtzuen digitalizazioari eskainitako

Dinabi gunea dago. "Lanak nahikoa aurreratuta daude. Gobernuaren eskualde aktibazioarako diru-laguntzen zain gaude, beharrezko teknologia finantzatzeko. Enpresengandik gertu dagoen prestakuntza eta berrikuntza erakarri nahi ditugu. Dagoeneko prestakuntza emateko akordioak itxiak ditugu". Bestetik, SGAtik ibarreko enpresen arteko elkarlana sustatzen segituko dute, "beharrak identifikatzen eta erantzunak bilatzen".

Orain arte SPEn zeharkako lerroa zen merkataritza, "baina berrikuspenaren ondoren espazio bat emanen zaio. Arlo horretan aurreneko jarduna Garalurrek eta SGAK aurkeztu berri duten *Heldu komertzioari* kanpaina da". Elikadura arloan *Dastatu* kanpaina denda eta jatetxeetara zabaltzea eta Etxarri Aranazko eraldaketa gunea egitea izanen dira helburuak. Turismoari dagokionez, Uharte Arakilen trail estazioa egingen da. Bestetik, Donejakue bidearen lehen sustapen lanak egingen dira aurten. "Aurten oinezkoendako markatuko dugu. Bizikletendako markatzeak baliabide gehiago eskatzen ditu eta horien bila segituko dugu".

Guztiaren berri emanen diote Nafarroako Gobernuari Aste Santu ondoren. Gainera, eskerra eramanen dute: "Nafarroako erakundeekin elkarlana hobetu behar dugu, aurrera egiteko baliabide egonkortasuna behar dugu"

## Bost inbertsiotarako 230.000 euro etorri dira

Cederna Garalur elkarteak emandako diru-laguntzen onuradunak dira Sakanako Mankomunitatea, Uharte Arakilgo eta Altsasuko udalak eta Lakuntzako eta Etxarri Aranazko bi enpresa edo ekintzaile

SAKANA

Cederna Garalur elkarteak 2014-2020 Tokiko Garapen Parte-hartze Estrategiako laguntzak onartu zituen martxoaren 20an. Garalurreko zuzendari-kudeatzailer Ibon Mimentzak jakinarazi duenez, "landa-garapenerako programaren hirugarren deialdian Mendialdeko toki-garapenerako 29 proiektu onartu dituzte. Guztira 1.082.631 euro jasoko dute".

Babestutako proiektuen ezauzgarriak ikusirik, Mimentzak esan zuenez, "Nafarroako Mendialdean garapen-proiektu jasangarri eta berritzaileak, gure lurraldeko baliabideak darabiltzatenak, aurrera ateratzeko egiten ari garen apustu irmoa da. Agerian geratzen da, horrela, Mendialdea gai dela gaur egungo gizartean puri-purian dauden erronkei erantzun bideragarriak emateko". Banatutako diru-laguntzak Nafarroako Gobernuaren eta Europar Batasunaren finantziazioa du, Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programaren bitartez.

### Sakanako bost

Administrazioei dagokienez, inbertsio handiena Sakanako Mankomunitateak egingen du hondakinen bilketa eraginko-



Sakanan 749.308,95 euroko inbertsioa egingen da, laguntza 229.932,49 eurokoa da.

rragoa egingen duen informatika sistema bat ezartzeko. Horretara, 68.438,3 euro bideratuko ditu Mank-ek. Garalurrek 47.906,81 euroko laguntza emanen dio. Bestetik, Altsasuko Udalak etxegabeen aterpe berrirako ekipamendua jartzeko 61.931,43 euroko poltsa du, haietatik 43.352 laguntzarekin pagatuko duena. Azkenik, Uharte Arakilgo Udalak, bestetik, mendi lasterketetan aritzen direnendako trail estazioa egingen du 57.402,4 euroekin. Horretarako 40.181,68 euroko diru-laguntza jasoko du.

Azkenik, ekintzaile batek Lakuntzan turismo aterpea egiteko 399.896,82 euro inbertituko ditu. Haietatik, 50.000 euro Garalurrek jarriko ditu. Etxarri Aranazko enpresa batek, berriz, 161.640 euro bideratuko ditu bi edukiontzi egokitzeko. Haizagailu presio bidez edukiontzietatik airea kanporatu nahi dute sistema berritzaile baten bidez, horrela barruan dagoen naturatik eratorritako erregaia hobe banatu ahal izateko. Egitasmo horrek Garalurren 48.492 euroko diru-laguntza du.

GOIZERO 10:00-12:00  
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Batetik bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM  
**beleixe**

DENBORALDI BERRIAI

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO  
GUAIXE.EUS



Mila Kolore elkarteko kideek furgoneta Sakana Kooperatiban jaso zuten. UTZITAKOA

## Mila Kolorerendako urtebetetze oparia

Behar bereziak dituzten pertsonen elkarteak batetik bestera joateko egokitutako furgoneta mustu du. Martxo hasieran 10 urte bete zituen elkarteak eta hilaren akaberan Sakana Group-en egoitzan jaso zuten urtebetetze oparia

### LAKUNTZA

Mila Kolore elkartearen furgonetak bederatzi bidaiariendako tokia du. Horietako bi plaza gurgildun aulkiendako egokituta daude. Horiek atzeko atearren ondoan daude eta han du ibilgailuak gurgildun aulkiak igotzeko plataforma ere. Furgonetari parez pare begiratuta aulkiak eskuinean daude eta pasabidea du

ezkerrean. Hala, elkartekideek bidaiari zehar dituzten eskaerak erantzuteko aukera dute.

Furgonetarekin mugitzea eskatzen duten jarduerak egiteko aukera izanen dute. Batetik, Sakanako festa eta ospakizunetara joateko aukera izanen dute. Bestetik, Olloko Gure Sustraiak Baserri Eskolara joateko baliatuko dute. Baita oportretan Golaratzera joateko ere. Jakina, ibilgailua eskutan elkartekideek norabide gehiago jarriko dizkioite. Beti ere, elkarteko arima diren 20 pertsoneri aisialdiko eskaintza emateko helburuz.

### Dohaintza

Sakana Groupek emandako 49.000 eurori esker eskuratu du elkar-

**FURGONETA KIDEAK  
FESTETARA, BASERRI  
ESKOLARA EDO  
OPORRETARA  
ERAMATEKO DA**

teak furgoneta. Lakuntzako enpresak ibarreko kultura eta kirola sustatzeko eta sakandarren bizi baldintzak hobetzeko konpromisoa hartua du. Hala, bazkide kooperatibistek makina bat ekimen lagundu dituzte sortu zirenetik. Mila Koloreren proiektua “berezia” izan dela aitortu dute Sakana Groupeko Gizarte Kontseiluko kideek: “poz handia ematen digu pertsona horiek zeregina izateko eta etorkizunarako prestatzeko lanean ari den talde bikain hori laguntzea”.

Furgonetak sortzen dituen gastuak pagatzeko dirua badu elkarteak. Izan ere, Lakuntzan Mila Kolore eguna ospatu zen lastailaren 27an. Behar bereziak dituzten pertsonen gizarteratzea eta integrazioa aldarrikatzeko eguna izan zen. Aldi berean, dirua biltzekoa ere. Han jasotakoarekin pagatuko dituzte furgonetaren gastuak. Elkartekideentzako eguna “opari izugarria” izan zen eta oso eskertuta agertu ziren orduan.

## Izarrak bertatik bertara ezagutzeko aukera bihar

Larunbatean, 21:30etik 23:30era astronomia behaketa tailerra izanen da Aralar santutegi aurrean

### UHARTE ARAKIL

Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentuaren udaberriko kanpainaren barruan sartutako ekintzetako bat da *Izarrei so*. Astronomian interesa duten pertsoneri zuzendutako eskaintza da. Gauez zeru izartua teleskopio bidez begiratzea, argi kutsadurarik gabeko tokitik. Iruñeko planetarioko adituek gidatuko dutenak. Departamentuak eskaintza hori Sakanako Garapen Agentziarekin eta Plazaola turismo partzuergoarekin elkarlanean antolatuta du.

Izarren eta espazioaren behaketa parte hartu nahi dutenek aurretik izena eman behar dute. Horretarako, [info@sakanagarapen.com](mailto:info@sakanagarapen.com) helbidera idatzi behar da. Bide batez, antolatzaileek parte-hartzaileei gomendatu diete arropa egokia eta prisma-tikoak eramatea. Aldi berean jakinarazi dute Aralarako taberna irekita egonen dela alde zuzenetik aurretik norbaitek bokatak edo jateko zerbitzu hartu nahi baldin badu. Eguraldiak behaketa lantzeko ez balu jarduera aterpean egingen da.



Aurora sakandarrak Iruñeko udaletxe parean. UTZITAKOA

## Autismoarekin sentsibilizatzeko, auroroak kantari aritu ziren

Iruñean Nafarroako Autismo Elkarteak antolatutako ekitaldietan parte hartu zuten auroroek

ETXARRI ARANATZ / BAKAIKU / ALTSASU Autismoa duten pertsonak gizarteko zati izan daitezkeen lanean ari da Nafarroako Autismo Elkarteak. Eta autismoaz sentsibilizatzeko egitarau zabala prestatu zuen larunbatean Iruñean, makina bat nafar erakarri zituen. Deialdiarekin bat egin zuten Nafarroako 40 herrietako auroroek. Auroro talde bakoitza Iruñeko kaleetan barna kantari ibili ziren 10:30etik aurrera. Haien artean Etxarri Aranaztik, Bakaitutik eta Altsasutik joandako auroroak izan ziren. Kantarietako gitar-jolez eta akordeoi-jolez la-

gunduta aritu ziren auroroak kantatzen.

Eguerdian auroro guztiak Gaztelu plazan elkartu ziren eta elkarrekin bost kantu abestu zituzten: *Cuando baja la Aurora a la tierra, La Aurora de San Fermín, Divina Estrella, Luz del Alba* eta auroroen himnoa den *Canto de la Salve Aurora*. Autismoa duten pertsonen zuzendaritzapean aritu ziren kantari. Ekitaldia despedituta Sakanako auroro askok Iruñea Kantuz ekimenarekin bat egin zuten, eta han kantari segitu zuten. Eguna bazkari eder batekin borobildu zuten.

**BIKAIN GARAJEA, S.A.L.**  
948 460 037 Arbizu  
948 468 411 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margolzea**

# Dendek erosketa etxera eramanean dizute

Altsasuko 20 komertziok euren bezeroei erosketa etxera eramateko zerbitzua eskainiko dute astelehenetik aurrera. Sakanako, Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteak espero du esperientzia pilotua zabaltzea

**SAKANA**  
Erosketa guztiak egin gabe kaletan barna poltsekin ibiltzea zeini ez zaio tokatu. Edo gauza batzuk erosi, etxean gehiagoren beharra izan baina ez erostea, gaixo edo adindua izateagatik karga etxeraino ezin duelako eramane. Edo... Makina bat arrazoi daude erosketa esperientzia ase gabe uzteko. Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko 20 dendek bere bezeroei zerbitzu gehigarri bat eskainiko diote: egindako erosketak etxera eramatea.

Elkarteko buru Ainhoa Alvarez Diez de Arkaiak azaldu digunez, "astelehenean abiaraziko dugu



Jendea Altsasuko Frontoi zeharbidean. ARTXIBOA

zerbitzua. Proba moduan hasten den esperientzia hau Sakanan zerbait berritzailea da. Harekin, kalitatea eta dendariaren konfiantza baloratzen duten tokiko merkataritzako ohiko bezeroen beharrei erantzun nahi diegu". Diezek argitu digunez, "behin erosketa eginda, bezeroak eta dendariak erosketa zein helbideetan eta noiz eman lotuko dute. Gainera, bezeroak bere telefonoa utziko du". Ondoren, MRW enpresak erosketak etxera eramane ditu. "Goizean egindako erosketak arratsaldean, eta arratsaldean egindako erosketak hurrengo goizean".

Elkarteko buruak argitu digunez, "logistika enpresarekin lan egiteak kostuak merkatzea eta lehiakorrek izatea dakar. Hala ere, denda bakoitzak erabakiko du dohainik eman edo gutxieneko prezio bat jartzea zerbitzuari". Diezek azaldu duenez, zerbitzua- ren probaldiak Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza izanen du.

**Asmo gehiago**  
Elkarteak ibarreko denden gida argitaratu zuen 2018an: [www.sakanakogida.eus](http://www.sakanakogida.eus)

sakanakogida.eus. Guneari edukia emateko aurreneko ekimena da erosketak etxera eramateko zerbitzua. Telefono mugikor- rerrako aplikazioa dute buruan. Bitartean, zerbitzu berriarekin denda gehiagok bat egitea espero dute.

Sakanako Merkataritzaren Plan Estrategikoaren aurkezpenean Iker aholkularitzako kideek gatzigatu zuten, "ibarreko merkataritzak modernizatu beharra du, kontsumo ohitura berrietara egokitu behar da merkataritza eskaintza". Eta erosketak etxera banatzea, Internet, telefono edo whatsapp bidezko eskaerak jasotzea eta bestelako neurriak jaso ziren planean. Gaur egun 483 establezimenduk 882 sakan- darrei ematen diete lana.





































**Non erabili zerbitzua?**  
Txartel, Arkatz liburu-denda, Asensio moda, Ekin boutique, Izara, Iker Kirolak, Joselen, Lar- ka, Lasa Kirolak, ML gizon, ML emakume, Sakana optika, Tu tienda especial, Txikitxo, Xagu informatika, Gertu Sakana, Akei- ta, Luresu, Intxostia kirolak, Bengoetxea eta Pinpilinpauxa.

## Plazan Baran...

-  Anitzartean Zerbitzua
-  Zaska
-  Aniztasuna
-  Mank
-  Sakana Harrera Harana
-  Giza Eskubideak

Sudoku hau ongi osatzeko, kolore egokiaz margotu beharko dituzu biribil zuriak. Kolore bakoitza behin bakarrik ager daiteke zutabe bakoitzeko, lerro bakoitzeko eta sei laukik osatzen duten area bakoitzeko.

## Anitzartean Sakanan





Euskaldun berri arbizuarrak omendu zituzten larunbatean. ARBIZUKO UDALA

## Euskaldun berrien “klikari” aitortza

Kultur-Korrikaren barruan, euskaldundu diren arbizuarrak omendu zituzten. Arbizuko Udalak antolatutako estreinako omenaldian 20 herritarrek jaso zuten aitortza. "Arbizun osoki euskaraz bizitzera iristeko denon ekarpen xumea beharrezkoa da"

### SAKANA

"Zuen ekarpenari esker ere Arbizu euskaren herria da, euskaraz biziko den Euskal Herriaren aleak zarete. Denok gara". Eta euskaraz hitz egiteko eta "Korrikako lekukoa bezala ondorengoei hizkuntza transmititzeko" gonbidapena luzatuz despeditu zuten larunbat eguerdian euskaldun berri arbizuarrak egindako ome-

naldia. Izan ere, Arbizun badira euskaldun berriak. Baina "klikari" egin ez dutenak ere. Udaletik esan zieten, haiekin batera Arbizun euskaraz bizi nahi dute. Horregatik, euskara ez dakitenak "klikari hori" egitera deitu zituzten.

Euskaldun berriei egindako omenaldian adierazi zuten, "herri euskaldun batean bizi zinetela ikusirik, une batean

Klika egin zenuten; lehen pausoa ematera ausartu zineten. Horrela, pitteka-pitteka, lehen hitzak eta esaldiak ikasi zenituzten. Eta, bat-batean, ingurukoekin euskarazko lehen hitzak gurtzatu zenituzten. Eta jabetu zinetenean egindako ahaleginak merezi zuela, pentsatu zenuten merezi zuela euskaltegia desorduetan joateak".

## Euskarazko Produktuen Katalogora harpidetzeko aukera

Haur eta gazteendako euskarazko produktuak sustatzen duen katalogoa.eus-en harpidetuta berriak jaso daitezke

### SAKANA

Urtebetetzeak direla, neguko oporrak direla... Askorendako buru haustea izaten da haur edo gaztetxo bati oparia erostea. Eta kontua are gehiago zailtzen zaio oparitu nahi dion hori euskarazko produktu bat denean. Egoera horri konponbidea emateko sortu zen Euskarazko Produktuen Katalogoa. 16 urte arteko haur eta gazteendako produktuen berri ematen du. Hamar atal ditu: aldizkariak, musika, liburuak, komikiak, informatika eta aplikazioak, jostailu eta jokoak, fil-

mak, gurasoendako materiala, ikas materialak eta e-bookak.

Katalogoan hainbat produkturen erreferentzia zehatza ematen da: produktuaren izena eta irudia, egilea, adin-tartea, argitaletxea, eta gutxi gorabeherako prezioa. Web guneak produktuetara edo argitaletxeetara zuzenean joateko loturak ere ematen ditu. Maiztasunez eguneratzen da, eta urtean zehar argitaratzen diren produktuak kontsultatzeko aukera ematen du. Katalogoak orain harpidetzeko aukera eskaintzen du. Horrela, han sartutako be-

rritasunak e-postan jasotzeko aukera izanen du interesatuak. Jakinarazi dutenez, urtean zazpi-zortzi buletin izanen dira, eta ez dute maiztasun jakinik izanen.

Euskarazko Produktuen Katalogoa 1998. urtean argitaratu zen estreinako. Nafarroako udal gutxi batzuek abiatu zuten ekimena, Sakanako Mankomunitatea barne. Gaur egun 135 toki-entitate dira parte hartzen dutenak, 200 udaletik gora guztira. Euskal Herriko lurralde eta ezaugarri oso desberdinetako hainbat herritako udalek egin dute bat euskarazko produktuak sustatzeko egitasmo honetan: handiak nahiz txikiak; euskaldun kopuru altuko nahiz baxukoak...

### Udalekuak

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak ibarreko



Sakana Harrera Haranak deituta kontzentrazioa egin zen.

## Euriak ez zuen herritarren arteko zubigintzan lagundu

Sakana Harrera Haranak kulturen arteko harremana sustatzeko antolatutako ekitaldi bustia egin zen

### ALTSASU

*Harresiak bota, zubiak eraiki* leloa zuen Sakana Harrera Haranak antolatutako ekitaldia. Foru plazan jarri zuten hitzordua. Jatorria, arraza, sexu edo kultura dena delakoa izanik ere, pertsona guztiek munduan tokia izateko aukera dute. Mezu hori zuten hurrek irakurri zituzten bertsoek eta olerkiek. Sakandarraren arteko besarkadak ere izan ziren. Eta hainbat herritarrek saharar emakumezkoek prestatutako tea dastatzeko aukera izan zuten. Egikeraren inguruko galderak egin zizkieten.

Plazatik udaletxe parera joan ziren eta han ekimenaren leloa zuen *Harresiak bota, zubiak eraiki* hainbat hizkuntzatan idatzia zuen pankartarekin kontzentrazioa egin zuten. Udaletxe pareko elkarretaratzean udaleko bi zinegotzik parte hartu zuten, Javier Paz (EH Bildu) eta Virginia Alonso (Goazen Altsasu).

Ostiraleko ekitaldiarekin Sakanako Harrera Haranak maiatzaren 5ean egingen den Herrien, Pertsonen eta Eskubideen Besarkada iragarri zuen. Ordukoa Europa mailako deialdia izanen dela aurreratu zuten.



Katalogoa.eus-en hasiera orria.

gurasoei euskara hutsezko udalekuen eskaintzaren berri eman die. Helburua gurasoei udako oporraldia antolatzen lagungarria zaien informazioa ematea da. Lehen Hezkuntzako eta Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako

eskaintza zabala esku-orri bantant jaso du Euskara Zerbitzuak. Baita AEK-k antolatzen dituen familia-barnetegiak ere. Euskarazko udalekuek joaten direnek zerbitzuan diru-laguntza eskatzeko aukera izanen dute.



## Pentsio publiko duinen aldeko manifestazioa bihar

Larunbatean, 18:00etan, Foru plazatik abiatuta. Maiatzaren 11n ere mobilizazioak egingen dituzte

### ALTSASU

Sistema Publikoko Pentsioen Defentsaren aldeko Nafarroako Koordinadorak hauteskunde bezpera aukeratu du bere aldarrikapenak kalera ateratzeko. Hauteskunde kanpaina hasi berrikan sistema publikoko pentsioen aldeko mobilizazioa antolatu du. Koordinadorako kideek azaldu digutenez, “2016tik Madril eta Nafarroan boterea izan duten ia alderdi guztiek pentsiodunak apenas izan gaituzte kontuan. Beraz, inor ez dadila asaldatu bukatzen den legegintzaldia milaka pertsonarendako penagarria dela esaten badugu”.

Koordinadorako kideak kezu dira gutxienez 1.080euroko pentsioa ezarri ez delako. Gogorazi dute hori eskatuz Nafarroan Herri Ekimen Legegile batek 7.000 sinadura baino gehiago jaso zituela, baina UPNk, PPK, PSNk,



2018ko manifestazioa. ARTXIBOA

Geroa Baik eta I-Ek atzera bota zutela. “Horregatik, hauteskunde bezperan kalera ateratzera behartzen gaituzte”. Biharko manifestazioarekin zera aldarrikatu nahi dute: “ekonomikoki bizi duina izatea gure bizitzaren azken zatia den jubilarzioan”.

## Irañeta, Uharte Arakil eta Arruazu bake epaile banaren bila

Irañetako, Uharte Arakilgo eta Arruazuko udalek jakinarazi dutenez, euren herrietako bake epaile titularren eta haren ordekoaren karguak hutsik daude. Ardura hori hartzen interesa dutenek, gaurtik hamabost egun balioduneko epea izanen dute bere eskabideak Uharte Arakilgo udaletxean aurkezteko.



Irañetako udaletxea. ARTXIBOA

# Enpresa berri bat 15 langileren bila ari da

Lantegiko arduraduna, hiru lantalde buru eta 11 langile kontratatu nahi ditu, irailean lanean hasteko. Interesa dutenek curriculum vitae alai@ecotermoformados.com e-postara bidal dezakete. 44 urteko eskarmentua duen Irungo enpresa da

### ALTSASU

Alai Ecotermoformados enpresa Isasia industrialdean kokatuko da, aurretik Gamesak, Fluiteknikek eta Gettingek erabili izan duten pabiloian. Hura orain alokatu, egokitu eta irailean lanean hasiko dira. Iñigo Intxausti zuzendari nagusiak esan digunez, “Altsasuren kokapen onarengatik, opatu dugun lantokia ona delako eta herrian industria tradizioa dagoelako aukeratu dugu enpresa Altsasun jartzea”. Gaineratu duenez, “15 langilerekin hasi nahi dugu: lantegiko arduraduna, hiru lantalde buru eta 11 langile. Baina bost urte barru 50 langile izatea aurreikusen dugu”. Hiru ardura maila direnez, hiru aukeraketa prozesu egingen ditu enpresak. Haiekan interesa duten langileek euren curriculum vitae alai@ecotermoformados.com e-postara bidali beharko dute.

18.000 metro karratuko lantegian bi produktu egingen dituzte: elikagaiak biltzeko plastikozko ontziak (% 80) eta garraiatzerakoan elkarren kontra ez jotzeko industriako piezak kokatzeko propio modututako azpilak (% 20). Enpresaren izenean dagoen “eco” horrek salatzen du Altsasun egingen diren bereizgarria zein izanen den: “bezeroek gero eta



Lantegi honetan kokatuko da enpresa berria. ARTXIBOA

gehiago birziklatutako materialak eskatzen ari dira. Kutsadura murrizteko eta ingurumena zaintzeko ardura gero eta handiagoa da. Guk birziklatutako materialekin azpilak egingen ditugu”. % 100ean birziklatutako PET-a, artoaren almidoetik sortutako PLA... Intxaustik argitu digunez, “almidoietatik gero eta material berri gehiago sortzen ari dira”. Eta horiek dira, hain zuzen, Alai Ecotermoformados-ek erabiliko dituen lehengaiak.

Iraila bitartean Alai Ecotermoformados enpresa BRC eta

ISO 14.000 ziurtagiriak lortzeko tramitazioan ari da. Aurrenak elikadura segurtasuneko lege betebeharrak betetzen direla ziurtatzen du, kontsumitzaileari babes maila gorena ziurtatzeko. Bigarren ziurtagiriarekin Ingurumen Kudeaketa Sistema eraginkorra ezarri nahi dute, ingurumenean eraginak murriztu eta ingurumen arloko legedia betetzeko. Intxaustik iragarri duenez, bi milioi euroko inbertsioa egingen dute, faseka. Altsasuko enpresaren jatorria Irungo Plasticos Alai da.

**Olga Martínez de Lagrán**  
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea  
- Minaren tratamendua  
- Antzietatea, depresioa, beldurak  
- Masaje psikomotoriala

olgamartagom@yahoo.es  
**639 408 118**

**Autoen seguruak**

**MAPFRE**  
La aseguradora global de confianza

**JOSE ANTONIO IMAZ PRIM**  
948 563 354  
jimazpr@mapfre.com  
San Juan 48  
ALTSASU

**Zure esperientziarik onena PREZIO ONENEAN**

**PORTUKO**

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdialin: 948 563 763



Giza kate ibiltarian Etxarri Aranatzeko barna. UTZITAKOA



Fran Balda Araña atxilotu zuteneko. ARTXIBOA



Bisitariak Brun forjan. UTZITAKOA

## Presoen osasunerako eskubidea aldarrikatu dute

Sareko kideek herrian barna egindako giza kate baten bidez zabaldu zuten aldarrikapena.

### ETXARRI ARANATZ

Osasunaren Nazioarteko Eguna zen igandean eta egun hori aukeratu zuen Sare Herritarrak espetxean larriki gaixo dauden pertsonen egoera gogora ekartzeko. Sarek gogorarazi zuen 21 direla preso egonda larriki gaixo dauden pertsonak. Horietao bat Jon Gurutz Maiza Artola etxarriarra da. 68 urte ditu eta azken 12ak preso egin ditu. Honako gaitzak ditu: ikusmen zorroztasunaren galera, ezkerreko begiko erretina-askatzea, berriki, eta eskuineko begiaren galera haurtzarotik; diabetesa, dislipemia; hipertentsioa eta fibrilazio aurikularra. Lannemazango karzelan dago, Etxarri Aranatzik 280 km-ra.

Etxarri Aranatzko Sareko kideak Maizaren berri emateko ebakuntza geletako jantziekin herrian barna kalejira isila egin zuten. Eskutan 21 presoaren izen-abizenak

zituzten kartelak eraman zituzten, eta aurretik megafoniak larriki preso daudenen berri ematen zuten.

Saretik nabarmendu zuten, "euskarri presoek ezartzen zaien salbuespeneko espetxe-politika, isolamendua, zigorren luzapena eta urrutze politikak preso dagoen pertsonaren osasun eragin zuzena dute". Sareko kideen azpimarratu zuten, espetxean egoteak "gaixotasunari aurre egiteko aukerak murrizten ditu, gertuko babesa, bizi baldintza duinak edota konfiantzako medikuen jarraipena ez izateko eragin zuzena baitu".

Bestetik, "salbuespen politikak desagerraraztea eta larriki gaixo dauden 21 presoak etxeratzea" eskatu zuten Sareko kideek. Horrekin batera, "presoen eskubideen" errespetua aldarrikatu zuten. Herritarrei egoerarekiko ardura hartzeko deia egin zieten.

## Balda irailaren 16tik aurrera epaituko dute

Auzitegi Nazionalen epaituko dute beste 46rekin batera, "ETAko espetxe fronteko kide" izatea leporatuta

### ARBIZU

Espainiako Auzitegi Nazionalen akusatuen aulkian irailaren 16tik aurrera eseriko direnak presoen abokatuak, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren bitartekari taldeko kideak, presoen senideak biltzen dituen Etxerat, presoen osasun egoeraz eta eskubideez arduratzen den Jaiki Hadikoak eta presoen giza eskubideak aldarrikatu zituen Herrira mugimenduko kideak dira. Azken erakunde horren kontrako bi sarekadetan atxilotu zuten Fran Balda Araña: 2013ko irailaren 30ean eta lastailaren 4an askatu eta 2015eko ilbeltzaren 12an atxilotu eta urte hartako lastailaren 16an askatu zuten.

Baldari fiskaltzak honako delituak egotzen dizkio: erakunde terroristan parte hartze aktiboa (11 urteko espetxe zigor eskaera), terrorismoaren goratze jarraitua egitea (2,6 urte), terrorismoa

finantzatzea (6 urte) eta kautela-neurria urratzea (0,11 urte). Guztira 20,5 urteko espetxe zigorra eta 10.800 euroko isun eskaera egin du fiskaltzak arbizuarrandako. Baldintzapeko askatasunean dago orduan, hamabostean behin epaitegira joan behar du eta ezin du estatutik atera.

### Adierazpenak

Auzitegi Nazionalen epaituko dute epaiketak gutxienez hiru hilabete iraunen duela. Atxilotetarik orain arte ezarritako neurriak euren "bizitzak baldintzatu" dituela eta aurrean duten egoera, espetxeratzea eta urrutzea, "gogorra" dela aitortu dute. Gaztigatu dutenez, "kausa justu baten alde antolatuta gara, elkartasuna antolatu dugu, giza eskubideak aldarrikatu ditugu eta preso eta iheslariak herrian egon daitezela lan egin dugu". Euren jarduna "erabat publikoa" izan dela nabarmendu dute, "helburu argiak izan ditu: euskal presoen eskubideak errespetatuak izatea, Euskal Herrian justiziazko bake egoera bat behingoz finkatzeko".

Auzitegi Nazionalen epaituko dute beste 46rekin batera, "ETAko espetxe fronteko kide" izatea leporatuta

## Ordu batzuez forjari aritzeko esperientzia bizi

Europako Artisautza Egunak zirela eta, Brun forjak ate irekien jardunaldiak egin zituen asteburuan. Bosgarren urtea da Izurdiagako forjari ekimenarekin bat egiten dutena. Eta denbora horretan guztian 525 bat bisitari izan dituzte. Asteburuan bakarrik 110 bat izan ziren forjarien ogibidea bertatik bertara ezagutu zutenak, Tenerife, Girona, Burgos, Logroño, Gasteiz, Hondarribia, Iruñea eta Sakanatik joandakoak. Asteburuko ate irekien jardunaldian 90 kilo ikatz erabili zituzten burnia goritzeko.

Eduardo Brunek Irisarrik esan digunez, "Sakanan ostatu hartutako turistek interes handia zuten. Batzuk forja ikastaroez galdetu zuten, Sakanako hurrengo oporraldia osatzea pentsatzen ari baitziren". Hurbilgotik joandako bisitariak ere "interesez entzun zituzten azalpenak". Hala ere, Brunek argitu digunez, "trenbide pasabidea kendu zuten zuten zuten geroztik errepedea ez da ateparetik pasatzen eta horrek bisita kopuruetan eragina du".

## Errepublikaren aldeko ekitaldia igande eguerdian

II. Espainiako Errepublika aldarrikatu zutela gogoan, eta balio errepublikarzaileak aldarrikatu asmoz, Altsasuko Ezker Batuak ekitaldia antolatu du udaletxe parean etzi eguerdirako. Manifestua irakurri, lore eskaintza egin eta musika errepublikarra entzuteko aukera izanen da. Jose Migel Nuin parlamentariak parte hartuko du.

**BIRZIKLAKETA LABORATEGIA SAKANA**

1 Altzariak berritzen ditugu

948 469 206  
batuta.sakana@gmail.com

**Txalaparta**

Taberna

948 467 070  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

**GUAIXE**

618 882 675



Otadiko Kristo Deuna ermita pareko abiadura muga gaur egun.

## Herrian abiadura muga 30 km ordukoa izanen da

Altsasuko sarreretan hortaz ohartarazten duten seinaleak jarriko dira aurki

### ALTSASU

Urtetan auto-eskolako irakasle izandako Miguel Anjel Montesinosek egindako proposamenari segituz, Altsasuko Udalak herri barruan ibilgailuendako abiadura muga 30 km ordukoa izatea erabaki du. Udalak horren berri emanez herriko sarreretan seinaleak jarriko ditu. Erabaki horrek ez dio oinezkoendako eremuei eraginen. Haietan ibilgailuendako abiadura muga 20 km ordukoa da.

Erabakia Altsasuko Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak hartu zuen apirilaren batean. Javier

Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, Montesinosek egindako hainbat proposamen Hirigintza Batzordean aztertu zituzten. Horietakoa zen abiadura muga jaistearena. "Foruzaingoak jasotako proposamen guztien bideragarritasun teknikoa aztertu zuen. Foru poliziak, ofizioz, beste txosten bat egin zuen seinaleztapen eta Zelandi eskola ondoko zebrabidearen kokapena hobetzeko neurriak proposatuz". Jakina denez, Udaltzaingoko plazak bete bitartean, udalak Foruzaingoarekin hitzarmena egin du.



ETXARRI ARANAZKO UDALA

## Utzubar industrialdea berrituta

Etxarri Aranazko Udalak Utzubar industrialdea berritu eta modernizatu du "bertako industria eta ekonomia garapena bultzatzeko". Hori lortzeko, argindar eta zuntz optikoko sareak lurperatu dira, zorua hobetu eta asfaltatu egin da. LED argiteria, arketen tapak ongi eta beharrezko seinaleztapen horizontal eta bertikala jarri dira. 181.673,77 euro izan dira.

# Kontzeju etxeko biltegiarendako ate berria

Han gordetzen diren trasteak errazago sartu eta ateratzeko ate handiago bat jarriko da kontzeju-etxearen alde batean. Ez da herrian aurten egingen den lan bakarra, Arakilgo Udalak goiko ur ekarritik herrira arteko ur-hodia berrituko baitu

### HIRIBERRI ARAKIL

Hiriberri-Arakilgo Kontzejuak 23.153,53 euroko aurrekontua du aurten, joan den urtea baino 2.725,53 gehiago. Kontzejuko kide Gaizka Unanuak azaldu digunez, kontzeju-etxea egingen duten lana da aurreikusten duten inbertsio handiena. "Etxearen atzeko aldean biltegia dugu. Han kioskoa eta barraka gordetzen ditugu". Baina haiek sartu eta ateratzeko eraikinaren atzeko aldean dagoen atea ez da behar bezain handia eta horrek zeregina zailtzen du. Horregatik, kontzeju-etxeko atzeko atea leiho bihurtzeko lanak egin eta eraikinaren alboan ate handiago bat



Kontzeju-etxea. ARTXIBOA

irekiko dute. Unanuak esan digunez, lanek 20.000 euro inguruko aurrekontua izan dezakete. Enpresen eskaintzen zain daude kontzejuan.

Bitartean, herrian beste lan bat egingen da, oraingoak Arakilgo Udalaren ardurapean. Sakanako Mankomunitatearen uraren goi-hornidurako hoditik Hiriberri Arakilerara ura eramaten duen hodia hondatuta dago eta urtero 47.116 m<sup>3</sup>-ko galtzen dira, udalarendako 7.345,38 euroko kostua izanik. Hori saihesteko Arakilgo Udalak 500 metroko hoditeria berritu egingen du aurten. Lanek 92.281 euroko aurrekontua dute.

# Ekitaldia

## ALTSASU

### Apirilak 23

asteartea

19:00 Iortia

**ERA  
BA  
KI.**  
Para  
avanzar

**ehbildu**



Sakanatik lau alternatibetako bi pasatzen dira. UTZITAKOIA

## Argindar linea egitasmoa baztertzea eskatu dute

Udalek 30 eguneko kontsulta epea zabalik dute. Hainbat hautetsik proiektua baztertzeko eskatuz adierazpena sinatzen ari dira, Iruñean hilaren 27an egingen duten batzarrean aurkeztuko dute

### SAKANA

Red Electrica Españolak Castejon/ Muru Arterderreta eta Itsaso artean 400 kV-ko zirkuitu bikoitzeko 100 km-ko argindar linea egin nahi du. Aurretik aurkeztutako bi proiektuak atzera bota ondoren hirugarren bat aurkeztu du. Egitasmoak ukitutako 49 udalek proiektu berriaren hasierako dokumentua jaso dute eta 30 egun dituzte euren iritzia emateko.

Horren guztiaz jakitun, Autopista Elektrikorik Ez! plataformak agerraldia egin zuen herenegun. Alberto Frias bozeramaileak gaztigatu zuenez, "egitasmo berriak lau ibilbide proposamen ditu. Haren eragin eremua aurrekoan atzera botatzea lortu zenaren antzekoa da". Friasek argitu duenez, "oraingo berritasuna da Orkoien eta Itsaso arteko egungo bi lineak berrindartzeko proposamena. Lau aukera proposatzen dira: hiruetan lineetako baten berrindartzea eta bestea kentzeko aukera". Proiek-

tuak ez da Deikazteluko azpies-tazioa agertzen.

Autopista Elektrikorik Ez! plataformako kideendako azken hori eta egungo lineetako bat kentzeko aukera jasotzea "garai-pen partziala da eta, aldi berean, kezko hesia. Plataformak sortu genuenetik eman ditugun argudioen zati bati arrazoia ematen die. Bestetik, gizarte, ingurumen, ekonomia eta kultura eragina izan den eta beharrezkoa ez den azpiegitura bat justifikatu nahi dute". Autopista Elektrikorik Ez! plataformako kideek bestelako proposamenak egingen dituztela aurreratu dute. Baita proposamena bertan behera uztea ere.

**PROIEKTUAK IRURTZUN, OLATZAGUTIA ETA ZIORDIA EZIK, HERRI GUZTIAK UKITZEN DITU**

### Galderak

Udaletxeetan jasotako egitasmoaren hasierako dokumentua aztertuta Autopista Elektrikorik Ez! plataformakoei galderak sortu zaizkie: azterketa eremua aurreko proposamenaren ia berbera bada, nola liteke aukerak desberdinak izatea? Eta 2015-2020 Argindar Sektorearen Planifikazioa 400 kV-ko linearendako loteslea bada, planifikazio horizergatik ez da 220 kV-ko bi lineetako bat berrindartzeko eta bestea kentzeko?

Argindar linea egitasmoaren aurkako plataformako kideek gaztigatu zuten, "Red Electrica Españolak justifikazio berriak aurkezten ditu etengabe erakundeen konplizitatea lortzeko, baina, aldi berean, linea horren helburu nagusia estaltzeko: Frantziara elektrizitatea esportatzeko programa indartsua garatzea, elektriken oligopolioari irabaziak handitzeko. Hura baita egitasmoaren benetako sustatzailea".

# ZUEI ESKER BISITAK GORANTZ DOAZ

GUAIXE.EUS



# ESKERRIK ASKO



Ongi jokatu zuen Zabaletak, baina ez zen nahikoa izan. Irribarria ez zen eroso aritu, eta "asko kostatu zitzaiera" aitortu zuen. ASPE

## Zabaletak ezin izan zuen txapela Sakanara ekarri

**PILOTA** Tentsio handiko partida gogorren, 22 eta 19 galdu zuten Irribarriak eta Zabaletak Elezkanoren eta Rezustaren kontra Binakako finalean. Ez zutela egunik onena izan eta asko kostatu zitzaiera nabarmendu zuten txapelkunordeek

Bilboko Bizkaia frontoia goraino betea zegoela jokatu zen Binakako finala. Katedrak Irribarria eta Zabaleta jotzen zituen favorito, txapelketan gehien jotzen zuen bikotea zelako, alde handiarekin, eta finalerdietan garaipe sendoa lortu zutelako Elezkanoren eta Rezustaren kontra. Dirua ere euren alde atera zen, baina ez zen gidioia bete. Partida oso gogorren, Elezkanok eta Rezustak Irribarriaren eta Zabaletaren jotze ikaragarriari aurre egiten jakin izan zuten, ongi eutsi zuten eta markagailuan aldea atera zuten hasieratik. Irribarriak eta Zabaletak bitan berdintzea lortu zuten, 10era eta 16ra, baina ez ziren markagailuan aurreratzekeo kapazak izan. Zabaletak partida ona egin zuen, baina Irribarriak ez zuen bere maila eman. Eta, azkenean, 22 eta 19 galdu zuten.

### Tentsio handiko finala

Finala tentsio handikoa izan zen. Elezkanok eta Rezustak hasie-

ratik aldea hartu zuten eta, aldiz, deseroso antzera ibili ziren Zabaleta eta Irribarria, azken hau batez ere. Hala ere, 10era berdintzea lortu zuten, eta partidak kolore urdina hartuko zuela espero zuten zale sakandarrek, arakildarrak gehienak. Baina berriro aldea atera zuten Elezkanok eta Rezustak, 16 eta 11, urdinen akatsengatik, bereziki. Tanto gehienak luzeak ziren, gogorrek, oso pilotatuak, eta Irribarriak eta Zabaletak dominatzen zituzten, baina gero ez zituzten ongi bukatzen. Nolanahi ere, 16ra berdintzea lortu zuten urdinek, baina hurrengo tantoa txapara joan zitzaien. Orduan, 21 eta 17 aurreratu ziren Elezkanok eta Rezusta.

Beraz, gauzak oso zail jarri zitzaizkien Irribarriari eta Zabaletari, baina ez zuten amore eman. Finala ikusgarriago bihurtuz, hurrengo bi tantoak Irribarriak eta Zabaletak egin zituzten: 21 eta 19. Mirarian sinisten hasiak ziren Sakanako zaleak. Baina,

tamalez, Irribarriaren pilota txapapera joan zen eta 22 eta 19 irabazi zuten Elezkanok eta Rezustak, merezimendu osoz. Rezustak bigarren txapela jantzi zuen, 2017an Irribarriarekin lortutakoaren atzetik, eta Elezkanok, aldiz, lehena. Hunkituta zeuden biak, eta Diman ospatu zuten txapela, elkarrekin.

### Zabaleta: "Ez dugu egunik onena izan"

Final ostean, triste zegoen Zabaleta. "Beraiek hasieratik bukaerara arte partidaren sartuta egon dira tanto guztietan. Guk ez dugu gure egunik onena izan, pilota dezente galdu ditugu bion artean eta uste dut horregatik galdu dugula" azaldu zuen Etxarrego.

### ZABALETA: "EZ DUGU GURE EGUNIK ONENA IZAN, PILOTA DEZENTE GALDU DITUGU; ETA PENAREKIN"

atzelariak. "Orain arte jokatu-tako bi finalak irabazi nituen eta lehenengo hau galduta, pena hartu dut" aitortu zuen Zabaletak. "Beti hobe jokatu nahi duzu. Joko honekin ondo sentitzen nintzen, baina ez da atera, ez ditugu tanto asko bukatu. Azkenean opari dezente egin ditudala uste dut eta triste nago horregatik" gaineratu zuen Etxarregoak. Eta "asko kostatu zaiela" azpimarratu zuen. "Hasieratik beraiek hasi dira irabazten, 4-5 tanto aurretik, errekupepatzen genuen pixka bat, beraiek gure opariengatik berriz 3-4 tanto jartzen ziren aurretik erraz eta gero guri kosta egiten zitzaigun errekupepatzea. Hala izan da partida bukaerara arte, eta penarekin" laburbildu zuen partidari, ezin hobe, Etxarrego atzelariak.

Ongi aritu zen Zabaleta; bizpahiru akats egin zituen, baina egun okerragoa izan zuen Irribarriak. "Ez dugu eguna eduki. Ni, batez ere aurreneko zatian, gaizki sartu naiz, ez nuen tantorik bukatzen, pilota ez zitzaidan sartzen. Beti atzetik, berdintzea lortu dugu baina opariekin segituan joan zaizkigu berriro. Eta horrela zaila da irabaztea" aipatu zuen Aramakoak. "Deseroso, zehaztasun falta... Dena. Ez dut pilota eskuan sartu. Haiek oso ondo kolokatuta zeuden eta apenas galtzen zuten tantorik. Nik ez dut nire maila eman. Jose oso ondo ibili da ematen nahiz eta bizpahiru pilota galdu, txokoa oso ondo kubritu du, zabala ere, eta nik hankak ezin mugitu. Sotamanoarekin min egiten nuen, baina errematean eta defentsan torpe ibili naiz. Perfektu jokatu behar da honelako bikote bati irabazteko, ez dugu egin, guztia eman dugu baina merezimendu guztiz irabazi dute" aitortu zuen Irribarriak.

### Txapelketa bikaina

Tamalez txapela ez da Sakanara etorri, baina zorionak eman behar dizkiogu Zabaletari eta Irribarriari, Binakako txapelketa bikaina egin dutelako eta finalera iristeagatik, hori gutxien esku baitago. Bukaeran Etxarrenen bildu ziren zaleak, eta nahiz eta ospakizun borobil-borobila ez izan, ospatzeko asko izan zuten. 2013an Irujorekin eta 2018an Ezkurdiarekin Binakako txapela jantzi zuen Etxarregoak, baina etorriko dira aukera gehiago.

## Ezkurdia eta Bakaikoa Buruz Burukoan

**PILOTA** Ezkurdia final laurdenetan sartuko da lehian eta Bakaikoa final hamaseirenetan

2019ko Buruz Burukoan aurkeztu zuten asteartean Bilbon, Guggenheim museo aurrean. 16 pilotari lehiatuko dira guztira, eta hutsune nabarmen bat egongo da, iazko txapelkunorde Aimar Olaizolarena. Mikel Urrutikoe-txeak hartuko du bere tokia taldeburuetan.

Bi pilotari sakandar ariko dira Buruz Burukoan, Aspeko Joseba Ezkurdia eta Baiko Pilotako Joanes Bakaikoa. Joanes Bakaikoak Victor izango du aurkari final hamaseirenetan, apirilaren 20an Ezkarain jokatu den partidaren. Irabazten duenak Irribarria izango du zain final zortzirenetan, apirilaren 28an Eibarren jokatu den partidaren. Joseba Ezkurdia, aldiz, maiatzaren 4an sartuko da lehian, final laurdenetan, Labriten. Bere adarrean, Artolak eta Arteaga II.ak jokatu dute final hamaseirenetan, Jaka izango dute zain final zortzirenetan eta partida horretako txapelkunordekin ariko da Arbizuko aurrelaria.

Irribarria, Rezusta, Bengoetxea VI.a, Jaka, Altuna III.a, Elezkanok II.a, Urrutikoe-txea eta Ezkurdia dira taldeburuak. Aurtengo Buruz Burukoan inoiz baino irekiago dagoela nabarmendu zuten guztiek aurkezpenean.

### PILOTA Irurtzungo eta Arakilgo Pilota Txapelketa abian

XXVII. Irurtzungo eta Arakilgo Pilota txapelketan, bihar, larunbatean, 11:00etan, Irurtzunen, Olaizola-Roldan Olano-Minarean kontra ariko dira eta Lansalot-Garatea Adonis-Arangurenen kontra. Asteazkenean, 11:00etan, Irurtzunen, Nazabal-Gaskuek Alberdi-Etxeberria izango dituzte arerio eta Murgiondo-Elizegik Uribe-Balardi.

# Altsasun erabakiko dira Nafarroako Kirol Jokoak

**HERRI KIROLAK** Igandean, 11:00etan, Nafarroako Herri Kirol Jokoetako finalak jokatuko dira Altsasun. Andra Mari ikastolako taldeek final guztietan jokatuko dute eta Iñigo Aritzako kadeteen proba konbinatuko eta kadeteen sokatirako finaletan ariko da

Aurreko igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoetako laugarren jardunaldia jokatu zen Berriozarren. Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatzen du txapelketa, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin batera. Aipatu txapelketan Sakanako Iñigo Aritzako eta Andra Mari ikastoletako taldeak parte hartzen ari dira, Nafarroako beste 9 klubetako taldeekin batera. Urtetik urtera gora doa txapelketa honetako parte hartzea eta orain arte, proba konbinatuetan 38 talde eta sokatiran 16 talde lehiatu dira. Etzi sailkapen onena lortu duten taldeek finalak jokatuko dituzte, Altsasun.



Iñigo Aritzako kadeteen sokatira taldea, Etxarri Aranazko jardunaldian.

## Berriozarrek utzi zuena

Berriozarko 4. jardunaldian, proba konbinatuetan aldaketak egon ziren aurreko asteetako emaitzekin alderatuta. Kimuen mailan 20 talde aritu ziren bost multzotan banatuta eta azkarrenak Berriozar B taldekoak izan ziren (6:33). Iñigo Aritzako Bargagain hirugarrena sailkatu zen (6:47) eta Andra Mari 6 laugarrena (6:47). Andra Mari 4 6.a izan zen (6:50), Andra Mari 5 7.a (6:53), Andra Mari 7 11.a (7:02), Iñigo Aritzako Intusburu 12.a (7:02), Iñigo Aritzako Gainsol 14.a (7:06), Andra Mari 3 16.a (7:11), Andra Mari 1 18.a (7:28) eta Andra Mari 2 20.a (7:30). Haur mailako proba konbinatuan 10 talde aritu ziren hiru multzotan banatuta eta Andra Mari 3 izan zen finena (8:56). Andra Mari 2 9.a sailkatu zen (11:05) eta Andra Mari 1 10.a (11:11). Eta kadeteen proba konbinatuan 7 talderen artean Iñigo Aritzako izan zen azkarrena (9:46). Andra Mari hirugarrena sailkatu zen.

Sokatiran, haur mailan (480 kg) A multzoan Andra Mari 2 (5 puntu) izan zen finena, Andra Mari 4 (4 puntu) taldearen aurretik. Iñigo Aritzako laugarrena sailkatu zen (2,5 puntu). B mul-

## ANDRA MARIKO TALDEEK FINAL GUZTIAK JOKATUKO DITUZTE ETA IÑIGO ARITZAKO EK BI FINAL

tzoan Andra Mari 3 nagusitu zen (4 puntu) eta Andra Mari 1 laugarrena sailkatu zen (1,5 puntu). Eta kadete mailan (540 kg), A multzoan Basarnegi (4 puntu) izan zen finena eta Andra Mari laugarrena (puntu 1). B multzoan Andra Mari 2 gailendu zen (3 puntu), Iñigo Aritzaren aurretik (2 puntu).

## Finala etzi Altsasun

Altsasun hartuko ditu Nafarroako Herri Kirol Jokoetako final handiak, igandean, goizeko 11:00etatik aurrera, Iortia Kultur Gune aurreko zabalgunean.

Lau jardunaldietako denborak batuz, denbora onena egindako taldeek lortu dute finalerako txartela. Horrela, kimuen proba konbinatuan Berriozar B, Andra Mari 4, Andra Mari 6 eta Araxes taldeek jokatuko dute finala. Iñigo Aritzako Bargagain sailkatzeaz

egon da, baina bosgarrena izan da sailkapenean eta gutxigatik baina kanpo geratu da. Haur mailako proba konbinatuan Andra Mari 3, Igantzi, Berriozar eta Antsoain A lehiatuko dira, eta kadeteen mailako proba konbinatuan Andra Mari, Iñigo Aritzako, Araxes eta Basarnegi.

Sokatiran, haur mailan (480 kg) Andra Mari 4, Andra Mari 3, Andra Mari 2 eta Txantrea taldeek jokatuko dute finala eta kadeteen mailan (540 kg), Basarnegi, Andra Mari 2, Antsoain eta Iñigo Aritzako taldeek.



Andra Mariko zakularia, Txantrean.

## Pilotan berdintasuna sustatzeagatik aitortza

**KIROLDEGIA** Altsasuko Emakumeen Bilguneak pilotan emakumeen parte-hartzea bulkatzeari aitortza egin zion

Altsasuko Udaleko Emakumeen Bilguneak Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoko antolakuntzari errekonozimendu egin nahi izan zion, aipatu pilota torneoan emakumezko pilotarien parte-hartzea sustatzeagatik. Hain zuzen ere emakumezkoek iaz hartu zuten parte, lehengoz, Otadiko Kristo Deuna Pilota Torneoan. Sociedad Deportiva Alsasuak eta Pilotajauku klubak antolatu zuten txapelketa lehengoz, elkarlanean.

Altsasuko Udaleko berdintasun teknikari Arantza Bengoetxeak eman zien saria emakumeen pilota sustatzen duen Pilotajauku pilotari klubeko ordezkariari, Dolo Fernandez de Arroiaberi eta Ainhoa Mazkiarani, igande eguerdian Altsasuko Gure Etxean. FB Sakana Institutuak sortutako 'Hezkidetzako' Eskulturaren 3D-kopia jaso zuten oroigarri. Igandean emakumezkoen Lilasterketa proba jokatzea aurreikusten zen Altsasun, eta probari lotuta sortu zen emakumezkoen berdintasuna sustatzen duen sari-keta, baina proba bertan behera geratu zen parte-hartze eskasagatik.



Pilotajaukuko udal ordezkariarekin.

# SAKANAKO IBILALDIA 19

XXX. URTEURRENA

## 2019KO APIRILAREN 27A

IRURTZUN - IRATXO ELKARTEA

IBILBIDE LUZZEA: IRTEERA: 06:00  
54 Km. - 3.388 mko desnibela

IBILBIDE MOTZA: IRTEERA: 07:30  
25,5 Km. - 1.440 mko desnibela

IBILALDI TXORRA: IRTEERA: 09:00  
14 km. - 736 mko desnibela

Itzulia emateko martxoaren 18tik apirilaren 24artz arte web-orrian eta ibilaldien egunean.

www.zirkuitua.com

www.iratxoelkartea.com - iratxomendi@gmail.com

# Nafarroa, Espainiako txapeldunordea

**FUTBOLA** XIV. Selekzio Autonomikoen Arteko Futbol Txapelketako 17 urtez azpiko finalerako sailkatu zen Nafarroako selekzioa. Bertan aritu zen Aroa Cerezo lakuntzarra. Finalean, 0 eta 1 irabazi zion Madrilek Nafarroari

Asteburuan XIV. Selekzio Autonomikoen Arteko Futbol Txapelketako azken fasea jokatu zen Iruñean. Bertan aritzeko sailkatu zen 17 urtez azpiko Nafarroako selekzioa, eta selekzioan jokatzeko deitu zuten Mulier taldean jokatzeko duen Aroa Cerezo lakuntzarra.

Azken fase horretan lehenik eta behin Andaluziako selekzioaren kontra aritu zen Nafarroa. Partida bikainean, Andaluziari 1 eta 3 irabazi zion Nafarroak, Sara Carrilloren hat-trickari esker. Aroa Cerezok ere jokatzeko aukera izan zuen. Horrela, final handirako sailkatu zen Nafarroa. Eta finalean Kataluniako selekzioa bidean utzi zuen Madrilgo selekzioa izan zuen aurkari.

Finalean, Sergio Galanek zuzendutako Nafarroak ederki estutu zuen Madrid, baina gol aukerak ez zituen behar bezala aprobetxatu eta 77. minutuan, zorigaiztoko jokaldi batean, Ma-



Nafarroako selekziokoak, Aroa Cerezo tartean. NAFARROAKO FUTBOL FEDERAZIOA.

drilgo Sonia Garciak gola sartzea lortu zuen eta Madrilek irabazi zuen Espainiako Selekzio Autonomikoen 17 urtez azpiko finala.

Nafarrak negar malkotan zuedela, Taxoaren bildutako 1.000 jarraitzaile ingururen txalo za-

parrada jaso zuten. "Lortu dugunak meritu handia du. Final bat jokatzeko eta Madrid bezalako potentzia bati aurpegia erakustea pribilegio bat da. Oso kontentu nago beraiekin" nabarmendu zuen Sergio Galanek.



ALTSASU INSTITUTUA

## 175 ikasle Sakanako orientazio proban

**MENDIA** Astelehenean Sakanako orientazio proban 175 ikasle eta 20 irakasle hartu zuten parte. ikasle hauek Arbizuko basoan, Sandindegi eta Zubat aldean ibili ziren, iparrorratzak eta mapak eskuan, orientazio

proban parte hartzen. Ondoko ikastetxeetako ikasleak aritu ziren: Andra Mari ikastola (19 ikasle), Agurain Institutua (49 ikasle), Altsasuko Institutua (73 ikasle), Iñigo Aritzta ikastola (20 ikasle) eta Korazonistak (14 ikasle). Esperientzia bikaina izan zen.

## SAKANAKO TOPAKETAK

### BENJAMINEN PARTIDUAK

#### IGANDEAN, OLAZTIN

10:00 Urdiain - Etxarri Aranatz 1

10:50 Etxarri A - Aralar Mendi 1

11:40 Altsasu A - Aralar Mendi A

12:30 Altsasu C - Sutegi 1

13:20 Altsasu B - Sutegi A

**Sakanako Futbol Topaketak bueltan** Atsedendaldia eta gero, Sakanako Futbol Topaketak bueltan dira. Benjaminek 9. jardunaldia jokatu du igandean Olaztin, goizeko 10:00etatik aurrera. Bost partida egonen dira jokoan. Kimuek, aldiz, Aste Santuaren ondoren, apirilaren 28an, berrekingo diete Sakanako Futbol Topaketei.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbideratu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoekin futbolearen arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea.



## ELOMENDI TXAPELKETA

### 22. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zaldua - Basati 7-2

#### SAILKAPENA

#### ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA

1 Bidezarra 48

4 Zaldua 41

#### HURRENGO JARDUNALDIA

Zalduak atsedend jardunaldia du

#### Zaldua sailkapenean laugarrena

Elomendiko Futbol Txapelketan Arakilgo Zaldua taldeak 7 eta 2 irabazi zion Basati taldeari Lekunberrin jokaturako partidari. Sailkapenean Elomendi da liderra (48 puntu), Barasoain bigarrena eta Elomendi hirugarrena, biak 42 punturekin. Zaldua laugarrena da, 41 punturekin, eta atsedend hartzea dagokio.

## FUTBOL PREFERENTEA

### 26. JARDUNALDIKO EMAITZA

Etxarri Aranatz - Artajones 2-0

#### SAILKAPENA

#### PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Burlades 51

12 Etxarri Aranatz 32

#### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

16:00 Burlades - Etxarri (*Ripagaina*)

#### Etxarri Burlades liderraren kontra

Preferente mailari eusteko erronkan Etxarri Aranatzek 3 puntu oso garrantzitsu lortu zituen Artajones taldeari irabazita. Luisek eta Xabatek sartu zituzten Etxarriko golak. Igandean Burlades liderraren kontra ariko da Etxarri, Ripagainan jokatu den lehiari.

## FUTBOL ERREGIONALA

### 5. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Ardoi - Lagun Artea 4-1

Lagunak - Altsasu 3-0

#### SAILKAPENA

#### IGOERA FASEKO A. MULTZOA

1 Ardoi 13

5 Lagun Artea 6

7 Altsasu 4

#### HURRENGO JARDUNALDIA

#### LARUNBATEAN

17:00 Altsasu - Urrozterra (*Dantzaleku*)

#### IGANDEAN

13:00 Lagunak - Lagun Artea (*Barañain*)

#### Atzera ere galdtu

Azken jardunaldian huts egin zuten gure taldeek. Ardoi liderra 4 eta 0 aurreratu zen eta bukaeran Iñakik Lagun Artearen gol bakarra sartu zuen. Altsasu ere punturik gabe etorri zen Barañaindik. Altsasuarrak saiatu ziren, baina ezin.

## EMAKUMEEN ERREG.

### 28. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Lagunak 0-4

#### SAILKAPENA

#### EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa 73

13 Altsasu 22

#### HURRENGO JARDUNALDIA

#### IGANDEAN

18:00 Ardoi - Altsasu (*El Pinar*)

#### Altsasuk eta Ardoik postua jokoan

Erregional mailako emakumezkoetan, Altsasuk sailkapenean bigarrena den Lagunak taldea hartu zuen eta garaipen potoloa lortu zuten Barañaingo neskek. Etzi, Zizurren, 20 punturekin sailkapenean 15.a eta arerio zuzena den taldearen kontra ariko da Altsasu.



## ARETO FUTBOLA Osasuna Magnak Barça liderra mendean hartu zuen

Osasuna Magna Xotak Barça Lassa liderra hartu zuen larunbatean Anaitasuna pabilioian. Partida garrantzitsua zen bi taldeendako, euren goiko postuei eustea baitzen bi taldeen helburua. Gauzak ez ziren batere ongi hasi Imanol Arregiren mutilendako, partida hasi eta zaleak oraindik eseri egin ez zirenean, lehen minutuan, Bynhok ate propioan gola sartu baitzuen, zorigaiztoko jokaldi batean. Egoera izugarri konplikatu zitzaion nafarrei, baina Osasuna Magnakoek egoerari buelta ematen jakin izan zuten. Gainera, egoera okertzeko, Roberto Martil jokalaria irurtzundarra lesionatu egin zen -bizpahiru aste emanen ditu lesionatuta-. Baina erasoan hasi zen Osasuna Magna, eta Saldisek, Eric Martelek eta Rafa Usinek sartutako golei esker, 3 eta 2 irabazi zuten berdeek.

"Gaur atzera ere Xota izan gara eta merezitako garaipena lortu dugu. Jokalariak ikusgarri aritu dira" adierazi zuen Imanol Arregi entrenatzaileak, pozik.

Barçak jarraitzen du lehen mailako lider (64 puntu). Osasuna Magna laugarrena da (55 puntu). Bi jardunaldi geratzen dira liga erregularra bukatzeko eta hurrengo partida apirilaren 20an jokatu dute berdeek, Segoviaren kontra.

## SASKIBALOA CBASK San Ignacio irabaztera behartua

Saskibaloian, Autonomia Arteko 2. mailako 2. faseko 1 eta 8 postuen arteko ligan, final laurdenetan San Ignacioren kontrako joaneko partida jokatu zuen Altsasuko CBASK taldeak. San Ignacio nagusi izan zen eta 91 eta 51 irabazi zion CBASKi.

Bihar, larunbatean, itzuliko partida jokatu dute CBASKek eta San Ignaciok Zelandi kiroldegian, 18:00etan. Txapelketan aurrera egiteko irabazi beharrean dago CBASK, horrela bi taldeek berdinketa hausteko partida jokatu beharko luketeelako apirilaren 27an, Iruñean. Galduz gero, Autonomia Arteko 2. mailako txapelketatik kanpo geratuko da CBASK.



Eguraldia alde izan zuten mendizaleek eta gozatu ederra hartu zuten Urbasa-Andian, Altzania eta Aralarren.

# 426 mendizale Hiru Mendi Zerrak martxan

**MENDIA** Eguraldi oso kaxkarra iragarria zegoen, baina nahiz eta Bargagain elurtuta egon, mendian ibiltzeko eguraldi paregabea egon zen eta bikain atera zen Altsasuko Mendigoizaleek antolatutako mendi ibilaldia

Eguraldi iragarpenei aurre eginenez, 426 mendizale animatu ziren Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako XII. Hiru Mendi Zerrak mendi martxan parte hartzera. Gehienek, 344k, martxa luzea egin zuten, (48 km, 2700 m desnibel metatua), eta gainontzekoek martxa ertainaren (30 km, 1.500 m desnibel metatua) eta martxa txikiaren (26 km, 1.200 m desnibel metatua) artean banatu ziren.

Egia esan, iragarpenei ez zuten guztiz asmatu, egun oso txarra baitzegoen iragarrita eta, azkenean, mendian ibiltzeko eguraldi aproposa egin baitzuen, fresko baino aparteko arazorik gabe, eguzkia ere tarteko. Hori bai,

Bargagainen elurra zapatzeko aukera izan zuten mendizaleek. "Eguraldi oso txarra iragarria zegoen eta, azkenean, egun bikaina atera da" adierazi zuen Altsasuko Mendigoizaleak taldeko Andres Bengoetxeak. Altsasuko proba ez lehiakor honen ibilbide luzea Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien XII. Txapelketako bigarren proba baliagarria izan zen, eta, horretaz gain, Euskal Herriko Ibilbide Luzeen Zirkuiturako puntuagarria den bigarren proba.


### Ibilbidea

Mendizale guztiak Altsasuko Gure Etxetik abiatu ziren, 7:00etan. Urdiainera jo zuten

hasieran, Urdiaindik Urbasa-Andiara igotzeko, Portuazpitik. Urbasa-Andiako parke naturala zeharkatu zuten, eta elurra zapatzeko aukera izan zuten bertan. Bargagaingo gurutzera (1.153 m) heldu eta gero, portutik barna, Gainsolera heldu ziren, eta handik jaitsierari ekin zioten, Ziordiaraino heldu eta bertako hornidura gunean atsedena hartzeko. Indarrak berreskuratzeko denetariko hornidurak zeuden, basurde gisatua tarteko. Segidan, ibilbide motza aukeratu zutenek partzelarietatik barna eta Cementos fabrikako atzealdetik Altsasura ailegatu ziren, eta gainontzekoek Kipular (1.059 m) igo zuten, gero Orobeko antzina-

ko harrobitik jaisteko. Ondoren, Sorozarretara jaitsi ziren, hango hornidura gunean atsedena hartzera. Ibilbide ertaina aukeratu zutenek, Dorretxikitik bueltatzea eman eta Altsasura iritsi ziren. Aldiz, ibilbide luzeoek segidan Balankaleku (983 m) eta Intxusburu (946 m) igo zituzten, handik jaitsi eta Sarabetik, San Pedroitik eta Basoitxitik barna Altsasuko Gure Etxera heldu ziren, Urdiaingo igerilekuen horniduran margak tomatearekin dastatuta, indarrak berreskuratu eta gero. Bukaeran, frontoiko horniduran, txistorra dastatu ahal izan zuten.

Parte hartzaileek Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar mendizerrak bildu zituen ibilbidearen edertasuna eta mendi martxako antolakuntza bikaina nabarmendu zuten. Azkarrenek, proba korrikari egin zutenek, 6 ordu behar izan zituzten ibilbidea osatzeko, eta mendizale gehienek 8 orduko batez bestekoa behar izan zuten. Guztia bikain ateratzeko 60 boluntario aritu ziren lanean Altsasuko Mendigoizaleak taldearen esanetara.



Taldea Urbasa-Andian.

## Garcia eta Irigoien Etxarrin

### FUTBOLA

Asteazkenean Osasunako Endika Irigoien eta Unai Garcia jokalaria Etxarrira hurbildu ziren eta Etxarri, Altsasu eta Lakuntzako Osasuna Fundazioko futbol taldeetako neska-mutilekin bildu ziren. Kultur Etxea txiki geratu zen, eta Osasunako jokalariei sinadura eskatzeaz gain, Osasuna Fundazioak sariak zozketatu zituen haurren artean.



# Nagore eta Beunza azkarrenak Ziordian

**ATLETISMOA** Ziordiko lasterketa solidarioan 396 korrikalarik hartu zuten parte kategoria guztiak kontuan hartuta. Horretaz gain, 7.820 euro jaso ziren ekimen solidarioetarako eta Paris 365 jantoki sozialerako 1.500 elikagai kilo

Larunbatean eguraldi oso txarra zegoen iragarrita, baina gero ez zen horrenbestera izan eta VI. Ziordiko Herri Kros Solidarioan ateri eutsi zion eta apenas euririk gabe jokatu ziren probak. Guztira 396 korrikalarik hartu zuten parte, 191k proba nagusian (6,8 km), 45 proba herrikoian (2 km) eta 154 neska-mutiko kategoria txikietako lasterketetan.

Proba nagusian Javier Nagore eta Izaskun Beunza olaztiarra gailendu ziren eta Javi Moreno bosgarrena sailkatu zen.

## Proba solidarioa

Baina Ziordiko proban sailkapena baino gizarite ekimenetarako lortzen dena da garrantzitsuen. Hori nabarmentzen dute antolatzaileek. Horrela, izena ematearen truke elikagaiak eraman behar zituzten korrikalariek eta zozketa solidarioetarako gutxienez euro bateko balioa zuen txartel bat erosi.

Dravet Fundaziorako 4.700 euro jaso ziren, zozketako txartelei eta fundazioak jasotako erabilitako errotulagailuen birziklapenari esker, eta oraindik diagnostikorik ez duen gaixotasuna duen 12 urteko Markel haurrendako 1.600 euro jaso ziren. Horretaz gain, Xabier Luna suhiltzaileak Tanzaniako emakume kolpekatuei bideratutako programa baterako 1.520 euro jaso zituen. Eta Ziordiko Running Talde antolatzaileetako Jose Ramon Ramirezek gaineratu zuenez, garun-paralisia duen Donostiako Olatz neskatilaren alde zozketa egitea aurreikusten da, eta zozketa horren txartelak saldu ziren baita ere Ziordian.

Probak bukatzerakoan auzate ederra izan zen korrikalari guztiendako. Probako 135 babesleei esker, lehendabiziko 150 korrikalariek opari-poltsa jaso zuten eta, horretaz gain, makina bat opari zozketatu ziren korrikalarien artean.



Eguraldia ez zen gehiegi kaxkartu eta korrika egiteko bikaina zegoen.

## SAILKAPENA BAINO, GIZARTE EKIMENETARAKO LORTZEN DENA DA GARRANTZITSUENA

### Sailkapena kontsultatzeko

Ziordiko lasterketako sailkapena ikusteko hurrengo web gunean sartu behar da: <https://ziordirunningtaldea.wixsite.com/ziordirunning/>

Antolakuntzatik gaineratu dutenez, korrikalari batzuen

datuak falta dira, batzuk dortsal gabe iritsi zirelako helmugara, eta, hortaz, norbaitek bere datuak eta denbora eman nahi baditu, antolakuntzara dei dezake.

### Sakanako Kopa abian

Ziordiko herri krosak Sakanako XVII. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria mustu zuen. Sakanako 10 korrikalari hoberenek puntuatzen dute Sakanako kopan, 10 emakumek eta 10 gizonak. Kopako hurrengo proba baliagarria ekainaren 15ean jokatu den XVI. Aitzkozar Herri Krosa izanen da.



Hasieran kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren.



Mikel Astiz Hirukiraptors taldekoekin, Eguesibarko Duatloian. UTZITAKOA

## Mikel Astizen Hirukiraptors, Nafarroako txapelduna

**DUATLOIA** Sakana Triatloi Taldea A laugarrena sailkatu zen elite mailan, eta Sakana B hamaikagarrena openean

Larunbatean XX. Eguesibarko Taldekako Duatloia jokatu zen Sarrigurenen, aldi berean Nafarroako Taldekako Duatloi Txapelketa zena. Taldekako erlojupeko proba zenez, parte hartu zuten taldeak banaka atera ziren. Elite eta open mailatan jokatu zen proba, eta baita bikoteetan ere. Eguesibarko Taldekako Duatloian duatletek 5,2 km korrika, 24 km bizikletan eta 2,5 km korrika osatu behar izan zituzten.

### Eliteetan Sakana laugarrena

Elite mailan, Ihabarko Mikel Astiz Erroren taldea, Hirukiraptors taldea gailendu zen Sarrigurenen, Mikel Astizek, Pablo Ibañezek, Xabi Orduñak, Ion Urrak eta David Latasak osatutakoa (1:08:53). Sakana Triatloi Taldeko A taldean Iñaki Alvaro, Sergio Garcia de Eulate, Ivan Sobredo, Juan Carlos Gomez, Francisco Javier Gomez eta Felix Benjumea aritu ziren eta

proba bikaina egin zuten, taldekako proban laugarrena sailkatu baitzen Sakana A taldea (1:11:29). Podiumera igotzear egon ziren sakandarrak.

Bestalde, Open mailan, Trigo B taldea izan zen irabazlea (1:12:16) eta Sakana Triatloi B Taldea 11.a sailkatu zen (1:21:25). Iñaki Arnedok, Isidro Asurabarrenak, Jorge Iradik, Gorka Chamorrok eta Juan Larreak osatu zuten Sakana B taldea.

Sakana Triatloi Taldetik adierazi dutenez, sekulako giroa egon zen Eguesibarko Taldekako Duatloian eta ahal zutena eman zuten duatleta sakandarrek.

### Sergio Garcia de Eulate, Greciako Iron Man 70.3ra

Asteburu honetan Greciako Iron Man 70.3 triatloi proba gogorra jokatu da Costa Navarinon eta bertan arituko da Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate.



Sakana Triatloi B Taldea, Eguesibarren. SAKANA TRIATLOI TALDEA

## Flores bosgarrena Opakuako Igoeran

**AUTOMOBILISMOA** Opakuan sei pilotu sakandar aritu ziren eta horietatik bik ezin izan zuten sailkatu

Larunbatean Escuderia Agurainek antolatutako XIII. Opakuako Igoera jokatu zen, Agurain eta Opakua arteko portuan (4,6 km). 67 pilotu aritu ziren, 10 monoplazen kategorian, 39 turismoen kategorian eta 18 Formula Libre (FL) kategorian. Tartean sei pilotu sakandar aritu ziren eta horietatik bik ezin izan zuten sailkatu. Ez zen jardunaldi borobila izan gure pilotuendako.

Formula mailako Aitor Zabaleta (Lola T298) izan zen azkarrena Opakuako Igoeran (02:20.088). Langreo Motor Club taldearekin aritu zen Garikoitz Flores pilotu lakuntzarrak (BRC B49) ez zuen zortea alde izan. Lehen igoeran aterazen (02:30.829), baina motorra ez zihoen behar bezala eta bigarren irteeran ezin zuen aritzerik izan. Hortaz, bosgarren Formula mailako bosgarren postuarekin konformatu behar izan zen Flores. Sakana Motorsport taldeko Iker Palacios, aldiz, ezin izan zuen lehen igoeran atera, autoan arazoak zituelako, eta nahiz eta bigarren igoeran saiatu, (02:7.516), ezin izan zen klasifikatu.

Turismo mailako 39 autoen artean Lagun Artea taldeko Bruno Scherer (Porsche 911 GT3) gailendu zen (02:37.280). Pilotu sakandarrei dagokienez, Eneriz Besga olaztiarra (Sakana Motorsport, Citroen Saxo VTS) 21.a sailkatu zen (03:01.138), Jesus Perez de Obanos (Arakil Motorsport, Renault Clio Sport) 30.a (03:12.281) eta Joseba Iñarrea (Arakil Motorsport, Peugeot 206 GTI) 31.a (03:19.823).

Bukatzeke, FL kategorian sailkatu ziren 18 pilotuen artean Eskomotor taldeko Mikel Fernandez de Arroiabe gailendu zen (BMW E30, 02:48.110) eta Sakana Motorsport taldeko Iker Askargortak arazoak izan zituen bere Opel Astra GSIarekin eta ezin izan zuen irteera hartu.

# Arrieta eta Alberdi Berako podiumean

**TXIRRINDULARITZA** Larunbatean Beran jokaturako lasterketan 4 sakandar sailkatu ziren lehen 10 txirrindularien artean: Arrieta, Alberdi, Aznar eta Gil. Kadeteetan Hugo Aznar hirugarrena izan zen Tafallan eta afizionatueta Josu Etxeberria 19.a Amorebietan

Larunbatean Beran bildu zen junior tropela, XLII. Felix Errandonea Memorialean (83 km). Lasterketa mugituan, Lizarte Ermitagaña taldeko Diego Uriarte eta Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrieta uhartearra iritsi ziren bakarrik helmugara, eta esprint estuan Uriarte gailendu zitzaion Arrietari (1:56:52). 1:16ra Arrietaren taldekide Aitor Alberdi arbizuarra sartu zen.

Sakandarrek maila ikusgarria eman zuten. Burundako Quesos Albeniz taldeko Unai Aznar laugarrena sailkatu zen eta Lizarte Ermitagañan dabilen Jon Gil lakuntzarra zazpigarrena. Jon Gilek tartekako helmugan sailkapena irabazi zuen. Horretaz gain, Inhar Astitz (Sakana) 20.a sailkatu zen, Mikel Lizasoain (Sakana) 27.a, Diego Gonzalo (Q. Albeniz) 28.a, Beola Motor taldeko Mikel Arretxe 30.a eta Unai Villalobos (Q. Albeniz) 42.a.

### Kadeteak Tafallan: Hugo Aznar hirugarrena

Tropel kadetea igandean bildu zen Tafallan, El Caserio Valsay Trofeoa jokatzeko (53 km). Cafenasa taldeko Ibai Azanzak aurea hartu zuen eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:23:41). 22 segundo atera zizkien jarraitzaileei, tartean helmugan hirugarrena



Igor Arrieta eta Aitor Alberdi Diego Uriarte txapelduna inguratzen. GURE TXOKOA

izan zen Burundako Quesos Albeniz taldeko Hugo Aznarri. Hirugarrena izateaz gain, mendiko txapelketa irabazi zuen Aznarrek.

Sakandarrak bikain aritu ziren, top tenean 4 txirrindulari sailkatu baitziren: Martzel Etxeberria (Sakana) seigarrena sartu zen, Jon Chamorro (Q. Albeniz) bederatzigarrena eta Jon Erdozia (Sakana) hamargarrena. Horretaz gain, Mikel Uncilla (Q. Albeniz) 12.a sailkatu zen, Sergio Lopez (Q. Albeniz) 13.a, Aimar Tadeo (Sakana), 21.a, Oihan Etxe-

berria (Q. Albeniz) 30.a eta Unax Trevejo 41.a (Q. Albeniz).

### Afizionatuak: Josu Etxeberria 19.a Amorebietan

Afizionatuen tropelak bi proba zituen igandean. Batetik, Amorebietan 59. Udaberri Saria jokatu zen (93,6 km), Lehendakari Txapelketarako baliagarria. Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Andoni Lopez de Abetxukok irabazi zuen, esprintean (2:17:53). Bere taldekide Josu Etxeberria iturmendierra 19.a iritsi zen helmugara, 3 segundo-

ra. Bestalde, Telcom taldeko Alex Uncilla 62.a sartu zen eta Goierriko TB-Laboral Kutxako Ailetz Lasa zieldiarra 69.a.

Egun berean Balentziaga Memoriale jokatu zen Eibarren, Espainiako Koparako baliagarria den lasterketa famatua (167,5 km). Lizarteko Iñigo Elosegik irabazi zuen lasterketa, erakustaldia eman eta helmugara bakar-bakarrik heldu eta gero (4:09:02). Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Juan Fernando Calle laugarrena sailkatu zen, eta Goierriko TB-Laboral Kutxako Eneko Aramendia iturmendierra 57.a.

### Euskal Herriko Itzulia Sakanatik pasa zen

Asteartean Euskal Herriko Itzuliako 2. etapa Sakanatik pasa zen, Zumarragan hasi eta Gorraizen despeditu zena. Etapa ikusgarria, 3. mailako Lizarrustiko portutik sartu zen Sakanara, eta Lizarragabengoatik Arbizura iritsi zen. Ondoren, Lakuntzara heldu eta Arakil guztia zeharkatu zuen, aurrera segi eta Gorraizeko helmugara heltzeko. Euskal Herrian txirrindularen zaletasun handia dago eta ibilbidea txirrindulari zaleez bete zen.

Ziordian bizi den Gorka Izagirre (Astana) Euskal Herriko Itzulian parte hartzen ari den sakandar bakarra da. Guaxe isterakoan atzoko Gasteiz eta Arrigorriaga arteko etapak zer eman zuen, ez genuen berririk. Liderra Maximilian Schachmann zen, Bora taldeko txirrindularia, herenegun Estibalitz santutegian Euskal Herriko Itzulian bere bigarren garaipena lortu eta gero. 33 segundora Jon Izagirre (Astana) zuen, eta Gorka Izagirre 57.a zen sailkapen orokorrean. Bere anaia podiumaren gainean egoteko lanean dabil Gorka.

## Juniorrak Altsasuko Erramu Trofeoan bilduko dira igandean

**TXIRRINDULARITZA** SDAk antolatutako juniorren LX. Erramu Trofeoa jokatu da Altsasun, 10:45ean hasita

Altsasu txirrindularien bilgune izango da beste behin, igandean Sociedad Deportiva Alsasuak antolatutako LX. Erramu Trofeoa jokatu baita, 10:45ean elkarrearen egoitza zenaren paretik abiatuko dena.

Lehenik eta behin Zegamako bidegurutzeraino helduko dira txirrindulariak, handik buelta hartu, Altsasutik pasa eta Urdiaineraino heltzeko. Han, ezkerrean egin eta igerilekuetako bidea hartuko dute, San Pedroko

bidegurutzean Altsasuko norabidea hartu, eta Basomuturrera heltzerakoan Institutuen bidetik sartuko dira, Altsasura sartzeko. Eta atzera ere ibilbide bera egingo dute: Urdiain, igerilekuetako bidea, San Pedro eta Institutuetako bidea. Ondoren, Altsasutik Altamira portua igoko dute, Olaztitik jaisteko eta segidan Urdiaineraino heltzeko. Atzera ere, San Pedrotik Altsasura helduko dira. eta berriro ere Altamira igoko dute txirrindulariek, Olaztitik jaitsi eta Urdiaineraino

heltzeko. Orduan, igerilekuetako bidetik eta San Pedrotik Altsasura helduko dira atzera ere, eta Institutuetako bidetik Altsasuko Zelai kalera aterata, Zegamako bidegurutzeraino joko dute. Buelta hartuta, Altsasura heldu eta Altamira igoko dute hirugarrenez, Olaztira jaitsi eta Altsasun Gartzia Ximenez kaletik igo, San Juan kalera sartu eta ezkerrean eginez Altsasura kaleko helmugara heltzeko. Ibilbide oso mugitua aurreikusten da, txirrindularitza gozatzeko aproposa.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 12

**ALTSASU** Nazioarteko gazte astea. Nazioarteko dantzak. 18:00etan, Intxostiapuntan.

**ETXARRI ARANATZ** Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa. 19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ** Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak. 20:00etan, plazan.

**ALTSASU** Altsasukoak aske kontzentrazioa. 20:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** *Perdiendo el este* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 22:00etan, lortia kultur gunean.

## LARUNBATA 13

**ALTSASU** Nazioarteko gazte agenda. Maleta misterioitsuak escape-room-a. 18:00etan, Intxostiapuntan.

**LAKUNTZA** Los del Rayo taldearen kontzertu sinfonikoa Haize Berriak bandarekin eta Erkudengo Ama abesbatzarekin. 19:00etan, kultur etxean.

**UHARTE ARAKIL** Kristoren nekaldi heriotza eta piztuerari buruzko antzerkia. 19:30ean, parrokiaren.

**ALTSASU** *Loco desatino* antzezlanaren emanaldia. 19:30ean, lortia kultur gunean.

**UHARTE ARAKIL** Astronomia behaketa tailerra. 21:30etik 23:30era, Aralarko santutegi aurreko zabalgunean.

## IGANDEA 14

**IRURTZUN** Mendi irteera: Saigots-Urepel 26 kilometrotako ibilbide luzea edo Sagots-Sarogai 17 kilometrotako ibilbide laburra eginen dute Iratzoko mendizaleek. 07:00etan, egoitzatik.

**ALTSASU** Errepublikaren aldeko

ekitaldia. 12:00etan, udaletxe parean.

**ALTSASU** *Hnos. Saquetti* Asaco producciones konpainiaren ikuskizuna. 17:00etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** Nazioarteko gazte agenda. Serigrafia poltsetan. 18:00etan, Intxostiapuntan.

**ALTSASU** Pentsio publiko duinen aldeko manifestazioa, Sistema Publikoko Pentsioen Defentsaren aldeko Nafarroako Koordinadorak deituta. 18:00etan, Foru plazan.

**ALTSASU** *Perdiendo el este* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.

**ALTSASU** *Carmen y Lola* zineforum filmaren emanaldia. 19:40etan, lortia kultur gunean.

## ASTELEHENA 15

**ALTSASU** Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea. 12:00ean, Udaletxe parean.

**ALTSASU** Bizi testamentua, eutanasia eta heriotza duinaren buruzko hitzaldia. Hizlaria: Manuel Eciolaza Duintasunen hiltzeko elkarteko kidea. 18:30ean, lortia kultur gunean.

## ASTEARTEA 16

**OLAZTI** Konpost banaketa festa. 10:00etatik 13:00etara, Intsumisioaren plazan.



LORTIA KULTUR GUNEA

**ALTSASU** *Hirigraf* Xabier Idoate artistaren erakusketa. Apirilaren 2tik 28ra. Astelehenetik ostiralera 18:30etik 21:00etara, larunbatetan 18:00etatik aurrera eta igandean 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



**ARBIZU** Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Apirilaren 1etik 17ra arte. Astelehenetik ostiralera 16:00etatik 20:00etara, liburutegian.



**ALTSASU** Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren artelanen erakusketa. Otsailaren 15etik apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.

## ASTEAZKENA 17

**ALTSASU** Altsasuko musika eskolako ikasleen kontzertua. 19:00etan, lortia kultur gunean.

## OSTEGUNA 18

**ALTSASU** *Una cuestion de genero* gaurkotasunezko filmaren emanaldia. 19:30etan, lortia kultur gunean.



## ZORION AGURRAK



June, Ainhoa eta Aitziber  
Zorionak June, Ainhoa eta Aitziber!! Gure sorginak!!



Haizea  
Zorionak Haizea!!  
Benetan handia zuade 10 urterekin, nahiz eta etxeko Txikia izaten jarraitu!! Muxu handi bat etxekoan partez!!



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU  
Telf./Faxo: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Jose Maria Betelu Zubeldia**

Ez zaitugu sekula ahaztuko

"Eskerrik asko momentu hauetan gure ondoan egon zareten senitarte eta lagunei.  
Baïta Uharte Arakilgo mediku eta erizainei ere"

**Etxekoak**  
Arruazun, 2019ko apirilaren 6an

ESKELA

**Miguel Angel Asurabarrena Lacunza**  
(Lakuntzako alguazila)

"Eskerrik asko Lakuntzari emandako guztiagatik"

LAKUNTZAKO UDALA

## IRAGARKI SAILKATUAK

## HIGIEZINAK

## LURSAILAK SALDU

**Lizarragako kontzejuak lur saila salgai jartzen du enkante bitartez** etxebizitza bat egiteko aukera ematen duena. Informazio gehiago [www.ergoiena.com](http://www.ergoiena.com) weborrian.

## ETXEA

## ETXEKO TRESNAK SALDU

**Miele markako arropagarbigailua salgai:** Gubi erabilia eta prezio onean. Interesatuak 618096204 telefonora deitu (Pello). Argazkia ikusteko, sartu [www.guaixe.eus/iragarkiak/](http://www.guaixe.eus/iragarkiak/)

## IKASTAROK

**Emozio-adimen tailerra:** Erresilientzia, ohitura osasungarriak, estresaren kudeaketa eta beste landuko dira Leticia Graces Larreakin maiatzaren 27an, 29an eta gara gartzaroren 3an, 17:00etatik 18:30era. Emakumeendako tailerra da, Arkailgo Udalak antolatuta. Maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena udaletxean, 948 500 101, 634 584 223 edo arakil-kultura@gmail.com.

**Arropari bigarren aukera emateko:** Berrerabiltzearen artea irakatsiko dute: eskuz eta makinaz

josten ikasi, norberaren josteko makina marbxan jarri, erabiltzen ez diren arropekin diseinu berriak egin, patch work teknika... Etxarri Aranazko Udalak antolatutako ikastaroa. Maiatzeko asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara, kultur etxean. 10 pertsonendako tokia dago. Izen ematea, astegunetan bulego ordutegian, udaletxeko bulegoan, 948 460 004 telefonon edo [zerbitzuak@etxarriaranatz.eus](mailto:zerbitzuak@etxarriaranatz.eus) e-postan.

**Zure memoria aktibatuz:** Norberaren esperientzietatik abiatuta, egoera errealean oinarritutako praktikekin. Marian Zestauk ematen du ikastaroa maiatzaren 13an eta 20an, 17:00etatik 19:30era. Emakumeendako tailerra da, Arkailgo Udalak antolatuta. Maiatzaren 7ra arte eman daiteke izena udaletxean, 948 500 101, 634 584 223 edo arakil-kultura@gmail.com.

## OHARRAK

**Odol-emateak Altsasun:** Apirilaren 23, 24 eta 25ean 17:00 - 20:30 eta 26an 9:30-13:00. Adona.

**Maravillasen aldeko herri bazkaria:** Iturmendin izanen da, maiatzaren 1ean, 14:30ean. Txartelak gaztebetan eta ohiko tabernetan

10 eurotan salgai. Iturmendiko gazte asanblada.

**Maravillasekin elkartasun eguna:** Sakanako elkartasun eguna apirilaren 27an izanen da, Ziordiko Amarauna espazioan. 14:30ean bazkari beganoa izanen da. Txartelak 10 eurotan Lakuntzako Sorginak, Arbizuko Arrautseko, Etxarri Aranazko LEku Ona eta Altsasuko Lezea tabernetan eros daitezke.

**Crowdfunding Kanpaina:** Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbazuararen erronkan parte hartzeri gonbidatuta zaude. Arruazutik Izabaraino mendi lasterketa eta gazta trukaketa Bideak dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru bilketa egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentala.eus/eu/crowdfunding-kanpaina> web-gunean.

**Bidelagun izan nahi?** Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzue? 600 482 024 telefonon edo AEKren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia guztia.

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

ESKELA

**Jesus Marin Gorriti**

Izan zarenagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko

"Eskerrak eman nahi dizkizuegu une latz hauetan gurekin egon zareten guztioi"

**Etxekoak**  
Uharte Arakilen, 2019ko martxoaren 27an

## JAIOTZAK

- **Suhara Izagirre Ormazabal,** apirilaren 2an Ziordian

## EZKONTZAK

- **Irati Gonzalez Alkoz eta Sergio Sandoval Caballero,** apirilaren 5ean Irurtzunen

## HERIOTZAK

- **Nazario Gonzalo de Anta,** apirilaren 8an Altsasun
- **Migel Angel Asurabarrena Lakuntza,** apirilaren 9an Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:  
24,20 €  
948 564 275

## Nabarmendu zure iragarkia

Modulo txikia:  
14,52 €

IZARRA  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AGÜL, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK  
ALTSASU Santa Cruz, 6  
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

"Betidanik"

☎ 948 19 70 70  
✉ @Grupolrache  
f Grupolrache  
🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# "Zuzenekoan entzuteko musika da gurea"

**ASIER REPARAZ ETA ANDER GARCIA ALERTA GORRIA**

Alerta Gorria arbizuko taldeak hamar urte betetzen ditu aurten. 'Amets gaizto bihurtu arte' diskoa kaleratu berri dute eta diskoaren aurkezpen kontzertuak ematen ari dira

**Erkuden Ruiz Barroso** ARBIZU

Joanes Satrustegi (bateria), Asier Reparaz (ahotsa), Ander Garcia (gitarra), Jon Iriarte (baxua) eta Urtzi Markinez (gitarra) dira Alerta Gorria taldea osatzen duten musikariak. Oso gazte hasi ziren, baina sorreratik barruan zutena abesti bihurtu dute.

**Taldea 2009 urtea sortu zenuten. Nolako izan da zuen ibilbidea?**

**ANDER G.** Oso gazte hasi ginen. 12 eta 14 urte bitarte genituen. Hasieran, lehenengo urtean, entseatzen hasi ginen. Uda aspergarri batean taldea sortzea pentsatu genuen.

**ASIER R.** Lehendabiziko urtean udaletxeak lokal bat utzi zigun arbizuarra ginelako. Arbizun hasi ginen, bigarren kontzertua Bakaikun eta hirugarrena Altsasun. Orain arte.

**Nolako musika egiten duzue?**

**A.G.** Hasieran bertsoak jotzen genituen, street-punk estiloan hasi ginen. Baina gure abestiek gure estiloa dute.

**A.R.** Guk pentsatzen genuenarekin punk-arekin erlazioatua go zegoen. Aurrera joan ahala beste ikuspuntu batzuk atera ziren eta estiloan sumatzen joan zen.

**'Amets gaizto bihurtu arte' diskoa kaleratu duzue. Hirugarrena. Nolako da?**

**A.R.** Aurreko udan izan zen taldearen momentu bat erre edo so egiten genuela. Duda izan genuen. Jarraitu edo ez. Edo jarraitzen genuen eta diskotzar bat egiten genuen ahal genuen gehiena ematen edo hemen uzten genuen. Eta zorionez lehenengo aukera erabaki genuen.

**A.G.** Denbora nahiko egon ginen prestatzen. Abestiak egiten eta musika ateratzen hasi ginen. Kontzertuak ez genituen jotzen diskoan zentratu ginelako. Hamar abesti dira. Abenduan Altsasuko lagunei eskainitako lehenengoa atera genuen. Beraiendako egin da izan zen. Beharra ikusi genuen.



Alerta Gorria talde arbizuarra. UTZITAKOA

**"PROTESTA ABESTIAK EGITEN DITUGU GEHIEN BAT; SORTU GINENETIK, BERDIN MANTENTZEN GARA"**

**Zer diote letrek?**

**A.R.** Gehiena protesta da. Gure ideiak berdin mantenduz jarraitzen dugu. Abestiren bat edo beste badugu gustatzen zaigunari buruz hitz egiten duguna, *Ostirala* kanta adibidez. Baina gehiena protesta da.

**Sakanako pop-rock lehiaketa irabazi zenuten, eta bi sari horien artean bat Hatortxu rocken jotzea erabaki zenuten. Zergatik?**

**A. G.** Hasieratik argi geneukan diskoa talde berriendako uztea. Guk beste bi geneuzkan.

**A.R.** Hatortxun jotzeko nahia duela urte asko geneukan eta aukera hori izan genuen. Beraz, aukera hoberena izango zela uste genuen.

**Eta nolako esperientzia izan zen?**  
**A.G.** Esperientzia hori bizi nahi genuen eta oso ondo egon zen. Larunbatean jo genuen eta gazetarik entzun ditugun eta erre-

ferentzia izan diren taldeekin jotzea oso handia da.

**A.R.** Esperientzia bakarra izan zen zen.

**Diskoa atera bai, baina zuzenekoak nahiago dituzue?**

**A.G.** Gure musika zuzenekoan entzuteko da. Gu oso gustura egoten gara jendearekin.

**A.R.** Disko bat kontzertu batean entzun behar duzuna jakiteko da. Gainera, atentzioa deitu digu Etxarrin, diskoa kaleratu eta bi astera jendeak abestiak bazekielako. Horrek poza ematen dizu.

**Nolakoak dira zuen zuzenekoak?**  
**A.G.** Saiatzen gara dena ematen guztietan.

**A.R.** Normalean inprobisatzen dugu. Lekuaren arabera gauza bat edo beste esaten dugu. Momentuan Asierri ateratzen zaiona da. Batzuetan ona da eta beste batzuetan ez. Hanka sartzea errazagoa da horrelako kasuetan.

**Diskoaren aurkezpen honekin atzerri joango zarete.**

**A.G.** Lehenengo aldia da, bai, eta gogotsu gaude. Gainera, lagunekin goaz: Nafarroa 1512 taldearekin. Etxean bezala.

**A.R.** Kuadrillarekin joatea plazer bat da. Ondoko herrira joan edo Danimarkara joan.



'Los del Rayo sinfonikoa' ikuskizuna 2018ko Altsasuko festetan.

## Los del Rayoren alde sinfonikoena Lakuntzan

'Los del Rayo sinfonikoa' kontzertua egingen dute bihar, larunbata, Lakuntzako kultur etxean, 19:00etan

LAKUNTZA

Lakuntzako kultur etxeko agertokia handitu behar izan dute bihar egingen den ikuskizunerako. Izan ere, hiru talde ariko dira taularen gainean: Los del Rayo rock taldea, Haize Berriak banda eta Erkudengo Ama abesbatza. Guztira 75 bat musikari egonen dira eszenan. Oinarrian Los del Rayo taldearen abestiak daude, rockaren esentzia, beraz, baina Haize Berriak bandaren haize instrumentuekin eta bestelakoekin zein abesbatzaren ahots ugaritasunekin nahastu dituzte. 2017ko abenduan egin zuten

lehenengo aldiz ikuskizuna bi urteko prestaketa ondoren. Altsasuko Festetan emanaldi berezia egin zuten Foru plazan eta bihar, larunbata, esperientzia errepikatuko dute Lakuntzako kultur etxean, 19:00etan.

Los del Rayo taldeak proposatu zituen abestiak eta hiruren artean adostu zuten zeintzuk egokitzen ziren hobe formatura. Partituren moldaketak Jose Maria Beltza, Iñaki Ramos eta Alberto Gonzalez musikariek egin dituzte. Beste emanaldietan bezala, Lakuntzan sorpresak egonen dira ere.



## Kontserbatorioan ikasten

Aurreko ostiralean Altsasuko Dantza eta Musika eskolako lau ikaslek Pablo Sarasate kontserbatorioan kontzertua eskaini zuten. Larraitz Goikoetxea Zuriarrain, Irati Aierdi Perurena, Lexuri Urteaga Carreño eta Maddalen Oiarbide Unamuno musikari gazteak astero bost egunez kontserbatoriora entseatzera joan dira eta ostiralean ikasitakoa erakutsi zuten.

# "Idazteak zentzua ematen dio bizitzari"

**JUANJO OLASAGARRE IDAZLEA**

'la hemen' poesia liburua saritu du Espainiako Kritikak. 2000. urtean argitaratu zuen azkenezko poesia liburu bat, nahiz eta poemak egiten erosoago sentitu

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Xabier Lete saria irabazi zuen Juanjo Olasagarre arbizuarraren *Ia hemen* liburuak. Sari hori nahikoa zela uste zuen idazleak. Hala ere, Espainiako Kritikak orain poesia liburu arloan saritu du.

**Nola hartu duzu saria?**

Pozik. Ezustekoa izan da. Ez da aurkezten zaren sari bat. Liburu argitaratu duzulako ematen dizute. Gainera, adin hauetan ilusioa egiten dizu, baina ez da zoratzeko modukoa.

**Beraz, ez zenuen espero.**

Ez. Ez dakit. Liburu horrek irabazi zuen Xabier Lete saria eta nik uste nuen saritan bidea egin da zeukala. Ez genuen, ez.

**Nola jakinarazi zizuten?**

Literatura kritiko hauek Villafranca del Bierzon elkartu ziren eta Jon Kortazarrek deitu zidan abisatzeko. Prentsa oharra 12:15ean atera behar zuten eta ordu erdi lehenago deitu zidan. Esan zidan ordura arte ezer ez esateko.



Juanjo Olasagarre, erdian, Xabier Lete saria jasotzen, iaz. ARTXIBOA

**Xabier Lete saria, Literatura Kritikoaren saria... Zer du lan honek? Zergatik da berezia?**

Ni ez naiz hoberena hori esateko. Denbora neraman poesia argitaratu gabe. Beti hartzen ditut apunteak libretetan eta boladaka

poema horietan lan egiten nuen. Karpeta batean gordeta neuzkan eta tarteka idazten nuen. Udan hainbat idazlekin egon nintzen topaketa batean eta lanean egon nintzen bertan ere. *Poz aldrebesa*-rekin oso nekatuta bukatu

nuenez gogoia neukan poema liburu bat egiteko. Eta jarri nintzen. Nire poesia liburuekin alderatuta zerbait berezia aipatu behar bada oso geldo lan egin dudala da. Urteetan egin dut. Poema batzuen lehenengo bertsiok duela bederatzirte idatzi nituen eta pixkanaka hurbildu naiz azken forma honetara.

**Eguneroko bat balira bezala?**

Bai. Horrelako zerbait. Badauka ere eguerokotik. Apunteak hartzen ditut eta apunte horiek berreskuratzen dituzu. Apunte batzuk horrela gelditzen dira eta beste batzuk poema izatera iristen dira.

**Aspaldi ez zenuen poesia egiten. Narrazioa argitaratu duzu azken urteetan. Baina zer nahiago duzu?**

Liburu honekin poesiarekin oso gustura gelditu naiz. Narrazioan ere ongi, baina poesiarekin gauzak esentzialagoak dira. Poesia erosoago da; esker hobeagoa. Nobela bat egiten duzunean, ipuinekin ez dakit zer gertatzen den ni ez dudalako inoiz ipuinik idatzi eta ipuin irakurle ere ez naiz, nobelan sartu arte edo eskema argi bat izan arte egunero idatzi behar duzu. Ez da hain erraza nobela batetik sartu eta ateratzea. Poesia liburu bat idazteko kontzeptuala edo ideia baten inguruan ez bada, saltoka joan zaitezke. Poema bat hartu, zirriborro bat egin, gorde, zuzenketa batzuk sartu, beste bertsiok bat gehitu... eta azkenean hori poema bat bihurtu.

**Poesiak liburu bakar batean gai desberdinak jorratzeko aukera ematen dizu.**

Bai, hori ere egia da. Eta ideia desberdinak. Azkenaldian nire buruarekin kezu nago iruditzen zaidalako zarata gehiegi daukagu gure inguruan. Sare sozialak, ez dakit zein pelikula ikusi beharra... eta ez zaizkit ideiak lehen bezala bururatzen. Bizimodua azkarregia da eta atentzioa gauza gehiegitan jartzen du. Mugikorrak aabatuko gaitu.

**Hala ere, motibagarria da horrelako sari bat jasotzea?**

Bai. Eskertu behar diet erabakia hartu duten zazpi kritikoei. Noizbait honi buruz hitz egin dut. Gertatzen dena da agian historiak gugandik salto egin duela. Bernardo Atxagatik Kirmen Uribera edo Harkaitz Canora salto egin du literaturak, eta hor erdian gaude nire belaunaldikoak. Ohi-turagatik idazten dut. Ez dut idazten zerbait espero dudalako. Sentsazio hori daukat eta *Poz aldrebesa*-rekin geratu zait. Ahalgin handia egin nuen eta ohar-kabea pasatu zen.

**Orain zertan zabilta?**

Nobela batekin ari naiz. Ez dakit fundamentuzkoa den edo ez.

**"GURE INGURUAN ZARATA GEHIEGI DAUKAGU, IDEIAK EZ DIRA LEHEN BEZALA ETORTZEN"**

## Hausnartzeko antzezlanak Uharte Arakilen

*Y tu... ¿que ves?* antzezlanak Kristoren heriotza eta berpizkundeari buruzko antzerkia eginen dute Uharte Arakilgo parrokiaren, 19:30ean. Bi dira *Y tu... ¿que ves?* antzezlanaren protagonistak: Bertineo eta Nikodemo. Mikel Garziandia Aralarko santutegiko apaizak azaldu duenez, Bertineo Jesusen ikusmena itzuli zion itsua da, eta Nikodemo hil ondoren Jesusen gorpua ehozteko hilobia utzi zion pertsona. Bien arteko solasaldi bat ematen da antzezlanean; hortaz, arrazoiaren eta bihotzaren arteko solasaldia ematen da. Garziandiak esan duenez, antzerkiaren helburua jendeak hausnartzea da. "Jendea kontzientziatu nahi dugu".

APIRILAK 13 LARUNBATA, 19:30

Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuituko komedia ikusiena

**LOCO DESATINO**

PRODUCCIONES MAESTRAS

**ortia**

APIRILAK 14 IGANDEA, 17:00

**HNOS. SAQUETTI**

GOZATU EGUNGO PAILAZO BIKOTE ONENETARTIKOAREKIN

**ortia**

# "Sufritu gabe hiltzeko aske izan behar gara"

Apirilaren 15ean, astelehenean, Duintasunez Hiltzeko Elkarteko kide den Manuel Eciolaza medikuak hitzaldia emanen du Iortia kultur gunean. Malusa Barandiaran mediku altsasuarra elkarteko kide da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

## 1 Zer da Duintasunez Hiltzeko Elkartea?

Hiltzea denoi dagokigu eta familia guztietan izan dugu hiltzearekin harremana. Osasungintzan lan egiten dugun asko konturatu gara badaudela gauza asko egiteko egoera txar horren aurrean. Elkarrekin honen helburua baliabide tekniko horiek legeztatzen eskatzea eta bide hori irekitzea eta hobetzea da.

## 2 Elkarrekin medikuek osatzen duzue?

Ez. Batez ere emakumeak gara elkarrekin honetan. Laguntzeko eta zaintzeko rol horietan batez ere emakumeak egoten gara, eta elkarrekin honetan nik uste emakume gehiago garela. Elkarrekin gauza asko egiten ditugu.

## 3 Zeintzuk?

Informazioa zabaltzeko behar da eta legeak aldatzen saiatzeko behar gara. Eutanasiaruntz joan behar gara. Europan eta hainbat herrialdetan egiten da eta nik uste bidea hori izan daitekeela. Jakinda bakoitzaren iritzia eta erabakia dela. Ez da derrigorrez bete beharreko gauza bat. Bakoitzak jakin behar du nola gauza



Malusa Barandiaran mediku altsasuarra.

nahi duen bere bizitzaren zati bat edo agurra.

## 4 Nola sortu zen?

Elkarrekin Madrilen jaio zen. Leganesko ospitalean larrialdi

zerbitzu burua zena, Luis Montes, espedientatua eta zigortuta izan zen hilzorian zeudenei trantzera hori hobetzen lagundu zela. Monteseke ikusi zuen jendea ez zela ondo hiltzen ari. Jendea sufrimenduz hitzen ari zen eta

trantzera hori luzatzen zen behar ez zenean. Elkarrekin leloa da 'Aske bukaerara arte'. Askeak izan behar gara. Badago aukera askeak izateko.

## 5 Hitzaldian hiru gai jorratuko dira. Lehenengoa bizi testamentua da.

Bidearen hasiera da. Orain egin daitekeena. Aurretiko borondateen agiria deitzen da eta elkarrekin honek horiek egiteko zabaltzen lan handia egiten du. Mota asko daude. Bertan agertzen da segun eta zein momentutan eta zein daitekeena. Aurretiko borondateen agiria deitzen da eta elkarrekin honek horiek egiteko zabaltzen lan handia egiten du. Mota asko daude. Bertan agertzen da segun eta zein momentutan eta zein daitekeena. Aurretiko borondateen agiria deitzen da eta elkarrekin honek horiek egiteko zabaltzen lan handia egiten du.

## 6 Legalki araututa dagoena da.

Bai, eta egitea geroz eta errazagoa. Edozein osasun etxetan egin daiteke. Gizarte langilearen kontsultara joan behar zara eta hor bertan egin daiteke. Norbera joan daiteke eta zuzpe egunetan erregistroan aktibatzen da. Erakutsi behar duzu askatasunean eta behartu gabe hartzen duzula erabakia. Gainera, erakutsi behar duzu erabakitzeko ahalmena duzula. Orain egin behar duzu, ongi gaudenean.

## 7 Betetzen dira bizi testamentuak?

Gizarte langile batek esan dit hau hasiera dela. Duela ez dakit zenbat urteko hasiera. Profesionalei ere kostatzen zaigu. Testamenturik gabe protokolo orokorrak aplikatuko zaizkizu. Baina protokolo berezi bat edo zure izarearekin edo pentsamendurekin bat datorren tratamendu nahi baduzu azaldu eta aurkeztu behar duzu. Legeak ere

aldatu behar dira. Legegintza honetan eutanasia hiru proiektu aurkeztu dira eta ez dira atera.

## 8 Eutanasia ez da legala. Nola legeztatuz behar dela uste duzue?

Belgikan, Herbehereetan eta hainbat estatu gutxi batzuetan dago legeztatuta. Gehienetan ez. Lege egokiena izango zen eutanasia onartzearena. Onartzea norbaitek ezin duenean jan, hitz egin edo mugitu, esaterako, erabaki dezakeela hiltzeko zerbait hartu nahi duela. Eta botika horiek salgai daude. Medikuek egiten dituz errezeta, Belgikan bezala. Hori da bidea.

## 9 Eta norbaitek hiltzen laguntzen baduzu, nahiz eta pertsona horrek eskatu?

Orain ikusi dugu. Epaiketa eta kartzela zigorrek egon daitezke.

## 10 Mari Jose Carrascoren kasuarekin debatea berpiztu da.

Urriaren Altsasuko Udaleko bilkuran aurkeztu genuen mozio bat ea udalak onartuko zuen elkarrekin ildo eta helburuarekin bat egiten zuten. Eta onartu zen. Hortaz, hitzaldi bat egitea erabaki zen. Horregatik antolatu dugu. Bitartean gauzak gertatu dira. Batzuetan zerbait aurrotza bezala ikusten dugu, beste batzuei gertatzen zaiela.

## 11 Zergatik erabaki zenuen elkarteko kide izatea?

Arrazoi pertsonalengatik eta profesionalengatik iritsi naiz. Nire amak erakutsi zidan hegoak nituela gauzak gainera ikusteko. Gauza batzuk aldatu behar direla uste dut. Lanean ikusten dugu batzuei asko kostatzen zaiela hiltzea eta eskuak lotuta ditugu.

## BAZKIDE ZOZKETA

### APIRILEKO SARIAK:

**1. SARIA:**  
EUREKAI ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA  
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN  
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

**2., 3. ETA 4. SARIA:**  
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA  
LACTURALE: ESNEKI LOTEA  
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN  
EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA